

Urtekarria 24

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2025EKO
URTARRILAREN 17A
bidaso.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus

Korrikaren arnas betea

23. Korrika Irunen hasi zen. Euskarari hauspoa emateko baliatu zuten AEKren egitasmoa eragileek. Hizkuntzak, baina, epaitegien oldarraldia jasan du 2024an.



bihotz bihotzez

eskerrik asko, **HITZA** *kide*

HITZAkideen KOPURUA GORANTZ DOA! Etxe zein komertzio gehiagotan irakurgai dugu OARSO BIDASOKO HITZAren astekaria. Era berean, sare sozialetan jarraipen handiago dugu.

ZUEN BABESA ETA LAGUNTZARI ESKER, 46 astekari eta 22 gehigarri berezi argitaratu ditugu aurten. Oarsoaldea eta Bidasoko weborrietan 5.700 albiste zabaldu ditugu, 204 bideo eta 401 argazki galeria.

MerkatarHITZA, OstalarHITZA eta Zerbitzu Gida sortu dugu, HITZAkide direnek erakusleiko berri bat izan dezaten, eta haien eskaintza HITZAko irakurleei zabaltzeko.

Zozketek gero eta arrakasta handiagoa dute. Bidelagun ditugun eragile desberdinek emandako sarrerek **KULTUR ESKAINTZA ZABALA** eskaintzea ahalbidetzen digu. Era berean, inguruko komertzio txikiek sari pila eman dizkigute HITZAkideei modu batera edo bestera helarazteko.

IGANDEA HISTORIAZ JANTZI! egitasmoa abiatu dugu. Hilabetero, Oarsoaldeko eta Bidasoko hainbat museorekin lotutako bisita zein ibilaldi gidatu bana doan eskaintzen ari gara.

• OARSO BIDASOKO •

HITZA



Azaroaren 30ean hilketa matxista izan zen Antxon. Abenduaren lehen eguneko gaitzespen elkarretaratzekoa da irudia. Imanol Saiz

• OARSO BIDASOKO •
HITZA

Argitaratzailea:

Oiartzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petrirena.

Produkzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:

Irun kalea 8 behea,
20100 Errenteria-Orereta.

Telefonoa:

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Publizitatea:

Telefonoa:

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua
(zalantzak argitzeko,
harpidedun egiteko):

943 30 30 35
harpidetza@hitza.eus

oarsobidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
bidaso.hitza.eus



2024an onetik asko, eta txarretik dezente

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Martxoan zen. Irun. Milaka euskaltzalek harrera egin zioten 23. Korrikari. Bidasoko hirian hasi zen AEKren eta euskararen aldeko mobilizazio lasterkari iraunkor eta erraldoia. Gogoa, ilusioa, saretzea, euskara eta euskaldunak. Horiek denak batu egin ziren martxoaren 14an San Juan plazan, han hasi zen Korrika; aurretik, ordea, sekulako ehuntze lana egin zuten euskaltzaleek egun horretaz gaindikoa izango den indarra sortzeko. Zoritxarrez, indar hori euskarak jasan dituen epaitegietako oldarraldien kontra ere erabili izan behar dute, hainbat sententziak bai Irungo zein Pasaiaiko hizkuntza eskakizunetan eragina izan baitute.

Indarkeria matxistak arrasto asko, gehiegi, utzi ditu Oarsoaldean eta Bidasoan. Lazgarriena azaroaren 30ekoa:

emakume bat hil zuen gizon batek Pasaian. Hilketa matxista horrek, eta bes-telako eraso askok erantzun irmoa izan dute, amorrutzkoa, desesperantzakoa batzuetan, baina irmo eta sendoa.

Errenteria-Orereta etxebizitza arloko eremu tentsionatu izendatu dute. Euskal Herrian izendapen hori jaso duen lehen udalerrria izan da. Horrek, alokairuzko etxebizitzaren merkatu basatian eragiteko aukera emango dio udalari.

Abuztuan, baina, beste hildako bat Gi-636 errepidean, Gaintxurizketan. Emakume bat harrapatu zuen auto batek. Istripu gehiago izan dira zonalde hartan joan berri den urtean, baina han bizi diren lezoarrak bereziki sutu zituen horrek, eta irtenbide eske errepide ertzera atera ziren. Aurten, behin-behinekoko soluzioa emango diote hango oinezkoen segurtasunari. ■



Idoia Genuak eta Mattin Sorzabalberek eraman zuten 23. Korrikaren lehen lekukoa, Irunen. Allende Arnaiz

23. Korrikak arrasto sakona utzi du Irunen

Martxoaren 14ko arratsaldean Irun euskararen erdigune izan zen. AEKren eta euskararen sostengurako iniziatiba erraldoia han hasi zen.

OARSO-BIDASOA

Korrikaren 23. ekitaldia Irunen hasi zen martxoaren 14an. Sekulakoa izan zen. Euskal Herri osoa hirira begira jarri zen udaberriaren atariko egun horretan, bero egin zuen. 16:00etan ekin zion bideari AEK eta euskara sostengatzeko herritarren lasterketa ibiltariak. Martxoaren 24ra arte piztu zituen euskararen aldeko irribarreak eta konpromisoak, Baionan bukatu zen egun horretan. Irun eta Hondarribia lehen orduetan zeharkatu zituen Korrikak;

Oarsoaldeko herrietara martxoaren 23ko gaualdean iritsi zen. Toki guztietan harrera izugarri handia izan zuen, jendez gainezka izan ziren Oarsoaldeko eta Bidasoko errepideak eta ertzak. Korrikaren harira hainbat izan ziren antolatutako jarduerak osagarriak: Korrika Txikiak, gazteenak, kultur ekitaldiak, adinekoen Korrikak... Erabat aztoratu zituen aurretik eta pasa zen egunetan herrietako kaleak. *Harro herri* leloa errotu egin zen.

Korrika hasi baino lehentxeago, San Juan plazan egin zen ekitaldian, Beñat Alzaga Irungo AEK-ko kideak eta Ane Elordi Euskal Herriko AEK-ko ordezkariak esan zuten Euskal Herri osoa zeharkatuz «gure irribarre handienak» erakusteko garaia hastear zela, eta hori guztia euskaldun izateaz «harro gaudelako» egingo zela, «gu garelako». Irribarre harroena, herri bulkada, eta herri nahia lau haizeetara zabaltzeko desioa azaldu zuten. «Asmoa da mundu osoan ikustea, han eta hor, bade-

la herri bat, euskararen herri harroa, euskaldunon herri harroa, euskarak marrazten duen herri harroa».

Hunkigarria izan zen Korrikaren hasiera. Areagotu egin zen emozioa lehen lekukoa Idoia Genuak eta Mattin Sorzabalberek hartu zutenean, biak ala biak Irungo AEK-ko kide, militante, saltsero, eragile eta euskararen aldeko langile nekaezinak. Haiena izan zen, Irungo euskalgintza osoaren izenean, hirian euskara harro bizi dutela adierazteko aldarria. Arrastoa utzi duen desioa izan da, gainera.

Saretzea

Irunen Korrikak izan zuen eragina ez zen egun batekoa izan. Ez zen mugatu martxoaren 14ko hartan bizitakora. Bai aurretik, zein ondorenean ere olatu handi eta txikiak sortu zituen. Eragileen eta euskaltzaleen arteko saretzetik eta elkartzetik iritsi ziren uhin horiek.

Izan ere, Irungo AEK-ko kideek garbi zuten, behin jakinda 23. Korrika hirian hasiko zela, Gipuzkoako bigarren herririk populatuenean euskararen alde eragiteko aukera baliatu behar zela. Hala, bai inizatibaren hasierakoak nahiz inguruan egin zituzten ekitaldi guztiak prestatzeko bilgune zabala osatu zen, saretze lana egin zen, argi luzeko ikuspegiarekin. Korrika hasi aurretik egindako elkarrizketan, honakoa adierazi zion HITZA-ri Idoia Genua AEK-ko irakasle historikoak: «Korrika zalan-tzarik gabe pizgarri bat da, eta uste dut kontzientziatzeko baliagarria dela. Azken batean euskaraz bizitzea erabaki politikoa da. Euskaldunok erabakitzeko aukera dugu, erdaldunek ez bezala. 35.000 lagunetik gora euskaldunak dira Irunen, beraz, asko dira euskaraz egiteko hautua egin dezaketenak».

Hautu hori egikaritzea, baina, ez dago erabat irundarren edo euskaldunen eskuan. Adibidez, euskararen kontrako epaitegien oldarraldiak erantzun dinamikan jarri ditu Irungo euskaltzaleak, eta adibidez, hiriko Eguberriak aurkezteko abenduaren 4an egindako ekitaldian euskarak ez zuelako inolako tokirik izan, 35 eragilek baino gehiagok gaitzespen mezua zabaldu zuten, mobilizazioa egitearekin batera. ■



Korrika Oiartzunen izan zeneko une bat. Korrika



Korrikak zapaldu zuen bigarren herria izan zen Hondarribia. Korrika



Lezoko eragileek harro garraiatu zituzten lekukoak. Korrika

OLHUI | IMFPB

Urte berriari begira, gazteak aurrera!

Pasaia Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua

Bidasoa kalea, 1-3, Trintxerpe. Pasaia. 943 40 48 94 www.fpb-olh.pasaia.org olh-fpb@pasaia.net

PASAIARAKO UDALA EUSKAL GOBIERNU BURGUA



Urritik da Errenteria-Orereta tentsio handiko eremu. I. Zarate

Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko, tentsioa

Etxebizitzako tentsio handiko eremu da Errenteria-Orereta urritik, eta batez ere alokairuan eragiteko tresnak izango ditu. Irunek, Lezok eta Pasaia bide hori hasi dute.

OARSO-BIDASOA

Errenteria-Oreretak etxebizitza arloko tentsio handiko eremu izendapena jaso zuen urriaren 2an. Otsailean aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzan eskaera beharrezko dokumentazio guztiarekin, ekainean hasi zuen Jaurlaritzak neurriak egikaritzeko prozedura, eta urrian jaso zuen izendapena herriak.

Mugarri hitza erabili zuen Aizpea Otaegi alkateak urriaren 2an Denis Itxaso Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuarekin batera egindako agerraldian. Mugarria etxebizitzaren erronkari aurre egiteko politika publikoetan orain arte izan ez dituzten baliabideak jarri dituelako udalaren eskura izendapenak: «Zehazki, deklarazioak aukera

emango dio Errenteriari 2023ko maiatzean onartu zen estatuko Etxebizitza Legeak aurreikusitako neurriak abian jartzeko, bereziki, alokairuen prezioen neurrigabeko hazkundeari mugak jarri ahal izateko». 2023an onartu zen Espainiako Etxebizitza Legea, eta horren arabera, udalerriek bizi duten egoeraren arabera neurriak har ditzakete etxebizitzaren gaian eragiteko, batez ere alokairuzkoen alorrean.

Eremu tentsionatu izendatzeko bi baldintza hauek bat bete behar dute udalerriek: bizilagunek euren diru-sarreraren %30 baino gehiago alokairuak eta etxebizitza-gastuak ordaintzeko bideratzea; edota azken bost urtean bertako alokairuen prezioak KPIa baino hiru puntu gehiago igo izana. Errenteria-Oreretaren kasuan, bi baldintza horiek betetzen dira, hala jasota dago izendapenaren prozesurako egindako diagnostikoan, eta datuak eman zituen Otaegik: «Errenterian etxebizitzaren alokairuaren hileko batez besteko prezioa %17,2 igo da azken bost urteetan; 2017an 608,8 eurokoa izatetik, 2022an 713,7 eurokoa izatera pasa baita». Araba, Bizkai eta Gipuzkoan %14koa izan da KPIaren hazkunde metatua; Errenteria-Oreretan, beraz, hori baino %3,2 gehiago igo da. Hipoteka eta alokairuaren kostuak, berriz, Eusko Jaurlaritzak zehaztutako %30 gaunditzen du hiru puntuan, Errenteria-Oreretakoa %33koa delako.

Plana

Izendapenarekin batera, Errenteriako Udalak etxebizitzaren arazoari hainbat erpinetatik erantzuteko hiru urterako plana aurkeztu zuela gogorarazi zuen Errenteriako alkateak: «Jakitun gara eremu tentsionatu izendapenak bere horretan ez duela etxebizitzaren errealitate gordina irauliko. Garbi dugu ikuspegi integralarekin lan egin behar dugula, erabilera turistikoak mugatuz, etxebizitza oro har eta etxebizitza publikoa gehiago sustatuz, etxe hutsak mobilizatuz, gaur egungo parkea birgaituz, eta zaurgarrien direnei sarbidea errazteko babes sistemak sendotuz». Horiek dira hiru urterako planera eramandako neurrietako batzuk, eta dato-

zen urteetan, beraz, planaren garapen osoa izango duela udalak helburu gaineratu zuen Otaegik.

Plan horrek Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) aurrerapenaren dokumentua hartzen duela erreferentziatzen ere azaldu zuen alkateak, eta datu gehiago eman zituen. Datozen urteetan udalerriko etxebizitzaren parkea 1.200 etxebizitzetara handitzea aurreikusitako udalak; horietatik %54 etxebizitzaren publikoak izango dira, «horrela etxebizitzaren publikoaren parkea modu esponontzian handitzea aurreikusten da; egungo 723 etxebizitzaren publikoetatik 1.372ra igarotzea, hau da, %90eko igotzea».

Etxebizitzaren tentsio handiko eremu izendapena jasotzen Bizkai, Araba eta Gipuzkoako lehen udalerria izan da Errenteria-Oregeta. Abenduaren 31ko datarekin, bakarra zen oraindik ere.

Herri gehiago

Irun izan zen, iazko urrian, Eusko Jaurlaritzaren udalerrira etxebizitzaren tentsio handiko eremu izendatzeko eskaera egin zion Bizkai, Araba eta Gipuzkoako bigarrena. Cristina Laborda alkateak eman zituen argibideak. Tramitazioa abiatzeko beharrezko ikerketa eta agiriak orduko hartan aurkeztu zituen udal gobernua. Horren arabera, azken bost urteetan alokairuzko etxebizitzaren prezioa %18,5 igo da hirian, eta familiariek euren diru sarreren %32 erabili behar dituzte etxebizitzaren gastuetarako. Eskaera egiteko baldintzak betetzen ditu, beraz, Irunek. Orain Jaurlaritzaren erantzunaren zain daude.

Bestalde, Lezoko Udala urriaren 9an iragarri zuen tenkatze izendapena eskuratzeko lanekin hasi dela. Hain zuzen, Olatzar eremuko babespeko 57 etxebizitzaren zozketan azaldu zuen asmoa Eneritz Arruti zinegotziak: «Eusko Jaurlaritzaren txostenen arabera, Lezok hori egiteko baldintzak betetzen ditu». Pasaia Udala ere zeregin horrekin hasi da. Azaroan adierazi zuen hango udal gobernua izendapena jasotzeko aurre-lanekin hasi dela: «Horri esker, Pasaia espekulazioa kontrolatzeko eta etxebizitzaren eskuratzeko baldintzak hobetzeko tresna gehiago izango ditu». ■

1.175 etxebizitzaren auzo berri baterako Irunen

Auzo berri bat egiteko hasiko dira 2025ean Irunen. Anaka eta San Migel artean 1.175 etxebizitzaren eraikuntzarekin hasiko dira aurten, hala erabaki zuen Irungo Udala iazko urrian, eremua birplanteatzeko proiektua behin betiko onartu ondoren. Lanen ondorioz, besteak beste, Donostia kalea hiribide bilakatuko da eta Luis Urantz kalea Anakaraino iritsiko da. Oarso-Bidasoan etxebizitzaren lotutako azken urteetako egitasmorik handiena da.

Etxebizitzaren egiteko eta ingurua urbanizatzeko 23 milioi euro erabiliko dituzte. Hala, 1.175 etxebizitzaren horietatik 887 inguru babes publikoak izango dira. Horrez gainera, auzorako ekipamendu publikoak eraikitzea dute asmo, hala nola, igerileku publikoak eta bestelako kirol ekipamenduak.

Eremu horretan eraztun perimetral bat sortuko dutela azaldu du Irungo Udala, Donostia, Anaka eta Jaizkibel



2025ean hasiko dira Anaka eta San Migel arteko auzo berria eraikitze lanak. HITZA

kaleak, eta Letxunborro hiribideak osatuko dutena. Kale horiei Luis Urantzuzen luzapena gehituko diote, San Migel-Anaka gurutzatuko duena.

Proiektuarekin «auzo berri bat» sortuko dutela gaineratu du udalak: «Anaka eta San Migel auzoak lotuko ditu, Irun hiriararen iparraldea eraldatuko du, eta beste hiri eredu bat sortuko da, konektatua eta eraginkorra».

Egurrezko labean egindako janariak

Rafael Pikabea 50, Oiartzun. Tel.: 943 49 25 85 / 640 08 08 72

kutixao
BELAR DENDA

Aialde kalea 1
Tel.: 688 65 37 75
martakutixao@gmail.com
@kutixao

astelehenetik ostegunera:
10:00-13:30 / 17:00-19:30.
ostiralak: 10:00-13:30.



Martxoko manifestazio erraldoiaren irudi bat. Urko Etxebeste

Lehen arretaren egoerak hautsak harrotu ditu

Iztietako anbulatorioaren egoera «jasangaitza» bilakatzen ari zelako, mobilizazio aro bati ekin zioten errenteriarrek urte hasieran. 10.000tik gora sinadura bildu zituzten.

ERRETERIA-ORERETA

Osasun publikoaren eta bereziki Iztieta auzoko anbulatorioaren egoera jasangaitza bihurtzen hasi zen 2023 bukaeran, eta 2024a ere aldarri berberarekin hasi zuten errenteriarrek: kalitatezko osasun arreta bermatzea. Osasun publikoan ezartzen ari ziren murrizketek egoera «jasangaitza» bilakatu zuela salatzeraz irten ziren kalera. Urtarrilean sinadura bilketa abiatu zuten Duintasuna elkarteak, Oreretako Mugimendu Feministak, erretiratuen klubek eta auzo elkarteak.

Bilketarekin batera, mobilizazio aro bati ekin zioten, martxoko manifestazio erraldoian biribildu zutena. Milaka lagunek herriko kaleak bete zituzten behin baino gehiagotan. «Lehen mailako arreta defendatu nahi dugu. Lehen fasea bukatutzat eman dugu, baina ez gara geldirik egongo», iragarri zuten

orduko hartan manifestariak. Iztieta anbulatorioaz gain, Beraungoarekin eta oro har eskualde osokoekin kezka agertu zuten. Izan ere, Iztieta eskualde osoari ematen dio zerbitzu larrialdi egoeraren bat dagoenean. Ia sendagilerik ez dagoela salatzen ibili dira urtea hasi zenetik. «Ez dugu ahaztu behar jaiotzen garenetik gure azken egunera arte zaintzen gaituztela. Osasun publiko langileek, eta oro har Errenteriako herrikideek, elkarrekin borroka egin behar dugu Osakidetzan, eta bereziki Iztieta anbulatorioan gure herriko oinarritzako arretan gertatzen ari den zentzugabekeria honi buelta emateko».

Aipatutako bilketa horretan 10.000tik gora sinadura bildu zituzten, eta martxoko manifestazioaren ondoren «zentzugabekeria honen erantzuleei» helarazi zizkieten: «Egoera hone-

tara eraman gaitu aurreikuspen ezak, biztanleria osasun sistema murrizketara kondenatu arte. Murrizketa horiek herritarren arteko arrakala sortzen dute, dirua duenak osasun pribatura jotzeko aukera duelako, eta gainerakoak osasun sistema murriztura joan behar dugulako».

Argibideak sailburuari

Errenteriako alkate Aizpea Otaegik, udalaren izenean, bat egin zuen herritarrek hasitako borrokaldiarekin. Bide horretan, urtarrilaren 30eko udalbatzan herriko zenbait eragilek aurkeztutako mozioak babes zabala izan zuen, 18 aldeko botorekin. Mozio horrek onartu zuen Errenteriako Udalak konpromisoa hartzen zuela arazoa konpontzen lagun zezaketen kudeaketak egiteko, baita mozio horretan hartutako erabakiak Eusko Jaurlaritzari eta Osasun sailburuari bidaltzeko ere. Bada, konpromiso horri erantzunez, gutuna helarazi zion alkateak sailburuari.

Lehenengo eskaerari muzin egin ondoren, bigarrenari erantzun zion Go-tzone Sagardui orduko Osasun sailburuak. Gutun horren arabera, sailburuak ez zuen konpromiso zehatzik hartu, «ahalmenik» ez zuela argudiatuta. Honakoak dira sailburuak alkateari helarazitako hitzak: «Errenteriako Udalak urtarrilaren 30eko osoko bilkuran lehen mailako arretaren egoera dela eta hartutako erabakiaren harira, gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu». Gaitzespen hori bi arrazoiren gainean oinarritu zuen sailburuak. Hemen hitzez hitz hark erantzundakoa: «Segurutzat jotzen da lehen mailako arretak dituen zailtasunak bilakaera probokatu eta interesatu baten emaitza direla; eta hori guztiz faltsua da».

Bigarren arrazoian, berriz, alkateak azaldu bezala, zailtasunen jatorriari egin zion erreferentzia Sagardui, medikuntza profesionalen falta argudiatuta eta Espainiako Estatuko Gobernuari aipamena eginez: «Estatuko Gobernuak, gaian eskumena duenak, ez zuten aurreikusi erretiroa hartzen ari direnen lanpostuak betetzeko beharko liritekeen profesionalen kopurua». ■

Saldiseren aitortza «berandu» dator

LEZO. Karlos Saldise, Eusko Jaurlaritzaren 2016/12 legeak hala aitortuta, giza eskubideen urraketaren biktima gisa izendatu zuten joan den urtarrilean. 2023ko abenduan jakinarazi zioten Egiari Zor fundazioari izendapen hori. Lege horren xedea «Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa» ematea da.

«Karlosen erailketa, beste asko bezala, lehenago argitu zezaketen. Baina hauen inguruko dokumentazioak, Konstituzioaren aurreko lege batek blindatuta jarraitzen du gaur egun», azaldu zuten orduan Egiari Zor-eko kideek. Orduko hartan elkarrizketa egin zien HITZA-k Karlosen arreba Mays eta Karmele Saldiseri. Albistea pozik jaso arren, aitortza «berandu» iritsi dela uste dute biek.

Urte hasiera iluna Oarsoaldean

OARSOALDEA. 2024. urtea albiste tristeekin hasi zen. Bi langilek bizitza galdu zuten euren lanpostuetan lanean ari ziren bitartean. Urtarrilean izan ziren urteko lehen bi heriotzak. Lehena urtarrilaren 18an jazo zen, Erreterria-Oreretan. Altzate eremu berrian egiten ari diren etxebizitza eraikinetako batean lanean ari zela izan zuen istripua langile batek, altueratik erorita.

Bigarren ezbeharra lehena jazo eta berehala izan zen, urtarrilaren 27an hain zuzen. Pasaiako portuan izan zen urteko bigarren heriotza hori. Iluntzean izan zen ezbeharra, segurtasunaz arduratzen zen 47 urteko langile bat zendu zen arratsaldean, karga maniobra bat egiten ari zenean. Zamalanak egiten ari zen kamioi batek harrapatu eta hil egin zuen portuko langilea.

Irailaren 6an heldu zen urteko hirugarren eta azken lan heriotza, Lodosan (Nafarroa) izan zen. Bi kamioik elkar jo zuten, eta ondorioz Erreterria-Oreretako garraiolarietako bat hil zen.



Pasai Antxo, hankaz gora

PASAIA. 2024. urtea topoko obrek baldintzatutako urtea izan da antxotarrentzat. Azpiegiturak lurperatzeko obrek hankaz gora jarri dute barrutia. Urtarrilean argia ikusten hasi ziren herritarrak, orduan iragarri zuten Euskal Trenbide Sareak (ETS) eta Eusko Jaurlaritzak udarako Gure Zumardia, behintzat, berreskuratuko zutela. Eta hala izan zen. Obrak martxa onean, uztaileko San Fermin festetako txupinazoa Gure Zumardian izan zen berriro.

Urtarrilerako Galtzaraborda eta Altxa lotuko dituen tunel berriaren obraren erdia bukatutzat eman zuten inplikaturako erakundeek. Bertara egindako bisita batean izan zen HITZA. Handik hilabete eskasera bukatutzat eman zuten tunel hori. Orduetik, Antxoko lurpeko geltokia

berria izango denaren hondeaketa lanak egiten ibili dira. Urriaren eman zituen bukatutzat ETSk lurpeko etorkizuneko geltokia izango denaren indusketa lanak.

Hortaz, Pasaia eta Altxako topo geltokia tunel bidez lotuta daude jada. Egun, etorkizuneko geltokiaren hainbat egitura egiten hasi dira, besteak beste, terminala egituratuko duten kontragangaren hormigoi porotsua eta sarbide arrapalaren egitura. Molinaoko errekaostoen desbideraketa eta berrazarpene egiteko lanak ere bukatutzat eman dituzte.

Etorkizuneko geltokia Gure Zumardia kalearen ondoko plazaren azpian egongo da. Geltokirako sarbidea Eskalantegi kalean izango du, eta igogailua plazan bertan (elizaren ondoan) jarriko dute. Larrialdiko irteera Hamarretxeta kalearen inguruan egongo da. Eskailerak atari bakarrera iritsiko dira, eta beratatik sartuko dira herritarrak. Bi nasak igogailu bidez egongo dira konektatuta, atari komun batekin.

2026an, zabalik

Euskal Trenbide Sareak joan den urriaren emandako aurreikuspenaren arabera, obra zibila 2025aren bukaeran egina izango da, eta hortaz, etorkizuneko geltokia eta azpiegitura berri guztiak 2026rako prest eta erabilgarri izango direla ziurtatu dute.

Pacheco Izeta
Loredenda

Urte berria, lore berriak

www.pachecoizetaloreak.com
943 49 18 68 652 76 57 19
MANTUT merkatalgunea
Diartzun

Lete
itzulpenak
www.lete.net

- administrazioa •
- publikitatea •
- liburuak •
- enpresa •

Tel.: 943 515 346 . www.lete.net . lete@lete.net

Hamar hilabeteren ondoren, tinko borrokan

Trintxerpeko Eskalerillaseko bizilagunak otsailetik borrokan daude, bitokia bota nahi baitiete, ETSk bertan egin nahi duen proiektu baten ondorioz. Oarsoaldeko Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren babesa izan dute hasieratik bizilagunek.

PASAIA

Otsailean jaso zuten zorigaitzoko albistea, ordutik euren bizitzak hankaz gora jarri dituen. Trintxerpeko Eskalerillaseko 10-11 so-toetako bizilagunek euren etxebizitza uzteko agindua jaso zuten otsailaren hasieran, egun batetik bestera. Orduan lau hilabete eman zizkieten euren bitokia izan direnak uzteko. Izan ere, Euskal Trenbide Sarearen (ETS) proiektu bat abiaraztea erabaki du portuak, zamen garraiorako trenbide bat eraikiko dute. Horrek eragin zuzena izango du Eskalerillaseko blokean, erabat eraitsi beharko baitute. Bertan, hamabi familia bizi dira gaur egun.

Lau hileko epea eman bazieten ere, oraindik ez diete bertatik ateratzeko agindurik eman. Dena den, egoerak bere horretan jarraitzen duela salatu zuen abenduan Oarsoaldeko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak. Otsailetik ez dutela inolako «alternatiba errealik» jaso salatzen jarraitzen dute, eta horren aurrean, tinko eutsi diotela borrokari: asanblada irekiak, manifestazioak, elkartasun egunak, sinadura bilketak eta bestelakoak egin dituzte. 10 hila-



Joan den ekainean egindako manifestazioaren irudia. Imanol Saiz

beteko borroka horretan bizilagunek alboan izan dituzte sindikatuko kideak uneoro.

Lasaitasun egoera batera «heltzetik urrun», salatu dute bizilagunei ohar-tarazi berri dietela «hau martxan jarri duten politikari, portuko agintari nahiz enpresariak ofentsibara jo eta proiektua lehenbailehen berrabiarazi nahi dutela». Sindikatu sozialistako kideen arabera, ETS bizilagunak noiz etxegabetuko zain dago «proiektuari argi berdea emateko, honela eskuak garbitu eta pilota portuaren teilatura bidaliz».

Sindikatu kideen arabera, «antza denez», portuko agintaritzak «kaleratze aginduak prestatzen» ari da: «Baina berriro ere ofizialki ez die inork ezer jakinarazi. Horiei guztiei argi esan nahi

diegu borrokan jarraituko dugula, eta adi egoteko honen aurrean aurrera eram litezkeen ekintzei».

Eskalerillaseko aferan «sistemaren funtzionamendua» agerian geratu dela esan dute azkenik sindikatuko kideek: «Arazoa ez da baliabideak falta direla. Arazoa, baliabideak enpresen etekinak handitzera bideratzen direla da. Argi dugu, hala ere, sistemaren funtzionamendu honen adierazpen bakar bat dela Eskalerillaseko auzokideena. Munduko txoko guztietan langileriak antzeko arazoak pairatu behar ditu etengabe». Arazoaren erroa «etxebizitzaren merkantzia izaera» dela uste dute, «kalitatezkoa, unibertsala eta doakoa izango den etxebizitza sistema bat martxan jarri arte ez da guztiz eta betirako konponduko». ■



30 urte ohitura zaharrak mantentzen

HONDARRIBIA. Hiru hamarkada igaro dira jada Emeki Emakume Elkartek puska biltzearen ohitura zaharren lekukoa hartu zuenetik. Haien aurretik Zelestina Miranda Bengoetxea Xele aritzen zen mairutan. 25 urte zituenetik 1994. urtera arte jarraitu zuen ohiturarekin, haren izeba Zelestinaren pausak jarraituz. «Hura ere jantzi eta martxan ibiltzen zen. Nik gauza bera egin nuen. Gaztetatik ekarri nuen grina hura», aipatu zion HITZA-ri joan den otsailean, hari egindako omenaldiaren harira.

Etxean zituen arropa zaharrenak jantzi, kortxoarekin aurpegia margotu, ahoko soinua hartu eta martxa egiten zuen. Akartegi auzotik hasi eta Mikel Enea baserriraino joaten zela kontatu zuen, familiakoak zirelako. Ondoren, Gornutz auzotik egiten zuen itzulera. Mirandak txantxetan azaldu zuen urte haietan sasoiaren zegoela. Buelta itzela egiten zuen.

Otsailaren 10ean jaso zuen aitortza Mirandak. Akartegiko Nabarro Enea baserrian jaso zituen mairuak bere alabarekin batera eta omenaldi gisa bertso bat eskaini, dantzatu eta eskerrak eman zizkieten. Hunkituta jaso zuen bisita berezia.

Ondorengoak, omenaldian bertan HITZA-ri esandakoak. «Izugarrria izan da hori niretzat, handia! Ez nuen hori merezi», aipatu zuen. Usadio zaharrarekin urte askoan jarrai dezatela opa izan zien Emekikoei. Ohitura mantentzeko beharra nabarmendu zuen: «Ibil dadila norbait. Batek laga eta beste norbaitek hartu dezala. Gu ez gara betiko. Norberak eman behar du orain pausua. Gauza ederra da ohiturak jarraitzea. Batek ematen ez badu, besteak eman dezala».

Oarso-Bidasoa astindu dute uholdeek

OARSO-BIDASOA. Otsailaren 12an, beste behin ere, Pasai Donibane Veneziar mozorratu zen egun batez, marea bizien eta itsaso zakarraren eraginagatik itsasoa berriz ere barrutiko kaleetara sartu baitzen, Santiago plazatik. Irungo eta Hondarribiko hainbat zonaldean ere antzeko irudiak utzi zituzten marea biziek, ikusgarri bezain arriskutsuak.

Uholdeak ez ziren otsailera mugatu. Urrian ere urak gainezka egin zuen Oarso-Bidasoko zenbait tokitan, bereziki Hondarribian. Marea horien koefizientea otsail eta martxo arteko uholdeena baino baxuagoa izan bazen ere, aipatutako hiru udalerriek ohiko protokoloak aktibatzeaz gainera, etorkizunean aldaketa klimatikoak eragin ditzakeen agertokiari aurrea hartzeko lanean jarri dira. Pasaian, esaterako, protokolo berezi bat aktibatu zuten urrian.

Hondarribian, adibidez, otsaileko uholdeen ondoren ikerketa hidraulikoa kontratatu zuen udalak. Ikerketa, momentuz, Mendelu auzoan zentratzea erabaki zuten, bertako arazoa sakonagoa delako, udaleko iturrien arabera. Salaberria Ingeniaritza enpresako ikerlariak jasotako emaitzak ikustean zur eta lur geratu ziren udalekoak, eta zenbait esku hartze egiteko lanean jarri dira.

Irunen ere gai horri lotutako zenbait lan egin ditu udalak 2024an. Esaterako, Real Union pasealekuan lan batzuk egin zituzten joan den uztailean, Bidasoa ibaiaren gorakadak eragin ditzakeen kalteak arintzeko asmoz.



Fusilatutako zortzi langileak gogoan

OIARTZUN. Kattin Txiki elkarteak eta Oiartzungo Udalak elkarlanean sortu duten jardunaldian barrakoiaren erreplika inauguratu zuten otsailean. Arkalen kokatuta dago erreplika hori, eta jardunaldia izan zirenenganako aitortza txokoa bilakatuko da. Kattin Txikiko ordezkariak omenaldi hartan azaldu bezala, 12.000 langile inguru ekarri omen zituzten Oarsoaldera, eta 3.000 Oiartzunera.

Fusilatu zituzten zortzi langileei (Felipe Ledesma Cano, Manuel Vancell Sola, Antonio Lopez de Dios, Mariano Calvo Herrador, Francisco Murillo Davila, Jose Sanchez Molero, Jose Sirera Inza, eta Antonio Lopez Fernandez) omenaldi berezia egin zieten otsailaren 17an. Mikel Laboaren Txoria txori doinuarekin batera, zortzi aitzur jarri zituzten barrakoiaren aurreko aldean, eta horietako bakoitzari fusilatutako zortzi jardunaldirekin horien izen-abizenak, eta krabelin gorri bana.

Fusilatutako Manuel Vancell Solaren biloba izan zen erreplikaren inaugurazioan. Hunkituta hartu zuen hitza Oiartzungo Udalarari eta Kattin Txiki-ri eskerrek emateko.



Bidasoko eta Oarsoaldeko manifestazioetako irudi batzuk. HITZA

Egun seinalatua da egutegian Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna baita. Elkarretaratzeak, manifestazioak, jardunaldiak... denetik egiten da emakumeen etengabeko borrokari ahotsa emateko asmoz, eta, Oarsoaldean zein Bidasoan ere, kalera irten ziren zientoka bizilagun.

Dozenaka izan ziren bi eskualdeetan egindako ekitaldiak. Errenteria-Oreteraren kasuan Ikamak eta Zirikia Neska Gazte taldeak deitutako manifestazioa izan zen mobilizazio nabarmenetako bat; ehunka lagun bildu ziren *Guk ez dugu sistema hau zainduko* pankartaren atzean. Bestalde, Oreterako Mugimendu Feministak deitu zuen manifestazioak ere izan zuen arrakastarik. Ekitaldi horretan, bandera feministak eta Palestinako banderak elkar hartuta egin zuten ibilbidea. Herri horretan

Berriz ere, morez tindatu dituzte kaleak

Martxoaren 8aren harira, dozenaka jarduera egin zituzten Oarsoaldeko eta Bidasoko herrietan. Beste behin, emakumeenak izan ziren kaleak.

OARSO-BIDASOA

egin zuten beste jardueretako bat auzoetako emakume taldeena izan zen. Mahaiaren bueltan ospatu zuten horiek Emakumearen Nazioarteko Eguna. Merkatuzarren bildu ziren 300 emakume baino gehiago bazkaltzeko.

Bien bitartean, Hondarribian hasi zen Bidasoko manifestazioa. Hendaatik ere atera zen beste zutabe bat *Berdintasuna finantzatu* aldarriarekin, eta Irungo San Juan plazan bukatu zuten M8 Asanblada Feministak deitutako manifestazioa. Alabaina, Jaizkibel konpainiak ere egin zuen elkarretaratzea Hondarribiko udaletxeko arkupetan, Martxoaren 8a egunero dela aldarrikatzeko.

Gurutze Santuaren plazan hasi zen Lezoko Martxoaren 8ko manifestazioa, eta Karlos Saldisen bukatu. Irakurketa egin zutenek zaintza ereduaren aldaketa jarri zuten borroka feministaren erdian, eta borroka hori dimentsio askotan egin behar dela adierazi zuten. «Kudeaketa negargarria egiten ari dira», esan zuten, eta zaintza sistema publikoa indartu eta pribatizazioari aurre egin behar zaiola gaineratu zuten. «Sistema jasanezina da, eta hori iraultzeko egin behar dugu borroka. Emakumeen bizitzak dira jokoan daudenak».

Oiartzunen, berriz, deialdi bikoitza egin zuen Feministen Asanbladak. Done Eztebe plazatik abiatuta, manifestazioa egin zuten lehenik, eta Wikiemakumeok –Jaione Ugaldebere, Josune Igoa eta Izaskun Madariaga– taldeari egin zioten aitortza. Emakumeen biografiak sortzearen bidez egindako lana aitortu nahi izan zuten. 43 emakume oiartzuarren biografiak jarri zituzten plazan. Halaber, gualdean izan zen bigarren hitzordua. Girizia elkartean izan zuen leku horrek, bertso afari feministak, alegia. Izaro Telletxea izan zen gai jartzailea, eta bertsoan Irati Alcantarilla, Haizea Arana, Alaia Martin eta Ekhiñe Zapirain aritu ziren.

Pasaiares kasuan, azkenik, Antxon eta Txintxerpen izan ziren mobilizazioak; Biteri eta Gernika plazetan. Martxoaren 8ko ekitaldiez gain, apirilaren 8ra arte luzatu zituzten kolore eta indar morea nagusi zituzten ekitaldiak. ■



Yakovlev 42 musika taldea, ikertuta

OIARTZUN. Yakovlev 42 musika taldeko sei lagun ikerketapean jarri, eta epaitegian deklaratzera joan ziren maiatzaren 6an, «diotenez, gure ikuspegi ideologiko berarekin bat ez datozen guztienganako gorrotozko diskurtsoa elikatzen ari gare-lako». Martxoan eman zuten taldekideek ikerketapean zeudenaren berria.

Guardia Zibilaren txosten batek abiarazi zuen prozesua. Horri guztiari herri erantzuna eman diote oiartzuarrek zuzenean eta zeharka urtean zehar. Adibidez, maiatzaren 6an bertan babes elkarretaratze jendetsua egin zen Oiartzungo plazan (irudian).

Kalera, lehen arreta zerbitzua hobetzeko

IRUN. Ebakuntza gelak handitzeko planak medio, Bidasoko ospitaleko lau unitatetako bateko ohe guztiak kentzeko asmoa plazaratu zuen Osasun Sailak. Gelen obren aferan eta eskualdeko lehen arretaren hobekuntzan aurrerapausorik ez emateaz gain, egoerak «etengabe egin duela okerrera» salatu zuen Osasun Bidaso plataformak. Oinaurreko anbulatorioaren proiektuaren geldialdia ere salatu zuen.

Honako eskaerak egin zituzten: «Osasun Sailak inbertsiorik egin ez duenez, egoera gero eta jasangaitzagoa da. Kontsultategi eta profesionalak falta dira; urologia zerbitzua eta minaren unitatea ixteari ez, eta Irun Erdialdeko medikurik gabeko larrialdi zerbitzuei ez; Ospitaleko espezialisten itxaron zerrendak murriztea, Oinaurreko anbulatorioa eraikitzea, eta Bidasoa Ospitalea handitzea eskatzen dugu».



Ane Mendizabal Sarriegi

ERNAIK LEZON EGIN DU 'GAZTEON ESKUTIK'

LEZO

Ernai gazte antolakundeak martxoaren 29tik 31ra egin zuen topagunea Lezon, *Gazteon eskutik loratuko da udaberria* lelopean. Euskal Herri oso-ko 3.000 gazte inguru bildu ziren Lezon, eta herria «kolorez, alaitasunez, esperantzaz eta bizipozez» bete zuten.

«Lehen lerroan jartzea» zen antolakundearen helburua, eta gazteen egoera mahai gainean jarri eta aurre egiteko proposamen konkretuak eta alternatibak loratu zituzten egun horietan. Topagunearen balorazioa eginda, zehaztu zuten «festa giro osasuntsua eta inolako liskarrik gabea» izen zela.



Haurrek telefonoa eraman ez dezaten

HONDARRIBIA. Hondarribiko guraso talde bat elkartu eta *Gotti Burua!* taldea sortu zuten seme-alabetan mugikorrek eta teknologia berriek duten eraginaz kezkatuta.

Sentsibilizazio kanpaina bat abiatu zuten haurrek sakelako telefonoak eraman beharrik ez izateko. Herriko hainbat ostalaritza eta merkataritza saltokik egin zuten bat egitasmoarekin. *Gurea erabil dezakezu* eranskailua duten bertako telefonoa erabil dezakete haur eta gazteek.

Mendibilgo azoka eraldatzeko bidean

IRUN. Martxoaren zazpian jakinarazi zuen udalak otsaileko osoko bilkuran aho batez erabaki zutela Mendibilgo udal azoka kudeatzeko eta ustiatzeko kontratuarekin bukatzea. Mercairun SLri zegoen esleituta 2000ko maiatzaren 11tik.

Miguel Angel Paez Hiri Bultzadako ordezkariak adierazi zuen azoka berri- tuta nahi zutela eta urrats hori «ezinbestekoa» zela. «Orain arteko proiektuaren eredia agortuta» zegoela azaldu zuen, eta horren erakusgarritzat hartu zituen ixten joan ziren postuak. Paezen uste- tan konponbideak eskaintzeko eta beste eredu bat proposatzeko aukera baten aurrean zeuden. Hiru urteko trantsizio aldi bati ekin zioten, egungo eredia eraldatzeko irizpideak ezartzeko. Udalak esan zuen «gertutasunaren, espezializa- zioaren eta tokiko kalitatezko produk- tuaren aldeko apustua» berresten zuela.



Apirilaren 12an egindako elkarretaratzearen irudi bat. Urko Etxebeste

Pasaitarrak kalera atera dira euskara babesteko

Donostiako epaitegi batek «diskriminatzailetzat» jo du udalak egonkortze prozesu bateko deialdian euskarako B1 maila eskatzea. Hori salatzeke, elkarretaratzea egin dute.

PASAIA

Pasaiako Udalak 2023an egindako kale garbitzaileen lanpostuak egonkortzeko deialdian gutxieneko euskara mailaren eskakizuna baliogabetzeko bi epai eman zituzten Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. eta 3. epaitegiek. Lanpostu horietarako lehen mailako euskara eskakizuna jarri zitzaizen 2015ean hamabost lanposturi. Epaileentzat «diskriminatzailea» da euskararen gutxieneko eskakizun hori ezartzea.

Herritarrek, horren aurrean, elkarretaratzea egin zuten sententzia salatzeke Antxoko Biteri plazan Euskalgintzaren Kontseiluak eta Bokale Pasaiaiko Euskararen Aholku Batzordeak deituta, apirilaren 12an.

Bokalekoek hartu zuten hitza lehengo. «Bigarren mailako ofizialtasuna ematen zaio euskarari, eta ondorioz, bigarren mailako herritar izatera behartzen gaituzte. Ezinbestean, behin eta berriro urratzen dira horrela herritarren eskubideak. Ez ditzatela urratu udalarekin euskaraz komunikatu nahi

duten pasaitarren eskubideak. Ez hartu Pasaiaiko euskararen normalizazio prozesuan atzerapausoa eragin dezaketen inongo erabakirik».

Udaleko langileek jarraitu zuten gero. «Zergatik da diskriminatzailea gutxieneko euskara maila bat eskatzea, eta ez deialdiaren oinarrietan ezartzen diren gainerakoak eskatzea?». Udalari ebazpen horiei helegitea jartzeko eta oldarraldiari aurre egiteko eskatu zitoten.

Jendarteari kalera ateratzeko gonbita egin zieten euskararen kontrako erasoan aurka aritzeko; eta, euskal langileei dei egin zieten lan mundua euskalduntzeko prozesua indartzeko. Kontseiluak, bere aldetik, Pasaia-koa «luzeegi doan zerrenda bateko azkena» izan zela esan zuen. Hots, alderdiei eskatu zieten euskararen normalizazioaren aldeko eta hizkuntza eskubideen babesarako neurriek «zentralitate» izan dezaten euren egitekoan. «Euskara lehen lerroa ekarri behar da». ■

Bidegorriaren azken zatiko lanak, aurrera

LEZO-PASAIA. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jasangarritasun departamenduak finantzatu du Lezo-Donibane bidegorriaren azken zatiko lana, EGEF Eskualde Garapenerako Europako Funtsen bidez. Apirilean, sei-zortzi hilabete arteko epean egitea aurreikusi zuten azpiegitura, eta 1.474.000 euroko inbertsioa bideratu zuten lanetarako. Beraz, 2025eko hasiera honetan lanak bukatzeaz dira.

GI-344 foru errepidean ekin zieten lanei, Lezon, eta herri hori eta Donibaneko herrigunea lotzen dituen bidegorria osatzea zen helburua. Donibanetik hurbilen dauden azken 300 metroen lotura da.

Mikel Arruti Lezoko alkateak erronkak nabarmendu zituen. «Proiektatutako konponbideak inguruko orografia malakartsuaren berezko erronkei egin behar die aurre, baita espazio mugatu berri batekin lan egiteko beharrari ere, galtzadaren egungo kokapenean eta portuaren aldean euste horma bana daudelako».



Euskal Herriko Itzulia Irunen hasi da 2024an

IRUN. Euskal Herriko Itzulia Irunen hasiko zela jakinarazi zuten martxoan (irudia aurkezpeneko da), baina, apirilean lehiatu zen jardunaldi entzutetsua. Zehazki, lehen bi etapatan, hilaren 1ean eta 2an, Irungo hiria izan zen protagonista argia. Lasterketa hori, azkenekoz, 2006an iritsi zen hirira.

Jose Antonio Santano orduko Irungo alkateak Itzulia Basque Country lasterketako antolakuntzari «Irunengatik egindako apustua» eskertu zion. Halaber, esan zuen Irun mapan «hobeto» kokatzen zuela kirol ekitaldi horrek. Itzuliaren 63. ekitaldia izan zen 2024koa.

Agur Kateako Elizatxo hiribideko zubiari

IRUN. Apirilean eraitsi zuten Kateako Elizatxo hiribideko zubia. Cristina Laborda alkateak «historikotzat» jo zuen lana, eta gogorarazi zuen inguru horretan «eremu ireki» bat sortuko dutela, auzoaren muinean.

Txirindulari eta oinezkoentzat izango den pasarela bat eraikitzeari ekin zioten, Elizatxo hiribidetik Errotazar errepideko bidegurutzeraino iritsiko dena. Ibilgailuak Errotazar bidetik joan behar dira Letxunborro hiribiderantz, eta trenbideen ertzean parke lineal berri bat sortuko dute. Parke linealarekin «kohesioa» lortu nahi dute, eta pasarela ekologikoa erekin, aldiz, trenbideen arrakala ixtea.

Irungo Areto Moldakorra helburu

IRUN. 2024ko aurrekontuetan, 200.000 euroko partida bat onetsi zuten Irungo Areto Moldakorraren (IAM) proiektua idazteko. Kirol eta kultur jarduerak jasoko dituen azpiegitura izango da, eta udalarentzat «ezinbesteko urratsa» izan zen HAPOn Ficoba eremu osora zabaltzen zen aldaketa proposamenari argi berdea ematea IAM eraiki aurretik.

Azpiegiturak gehienez 10.000 pertsonentzako edukiera izango luke, eta kirol ekitaldietarako 5.000 ikuslerentzako eserlekuak. Bidasoa eskubaloi taldearen egoitza izatea da xede nagusia, baina bestelako talde eta jardueretarako ere erabili ahal izango da.



HITZA

AMAIUR ETA HONDARRIBIA, SENIDETUTA

HONDARRIBIA

500 urte igaro dira Hondarribiak Nafarroako erresuma izatez utzi zuenetik, eta, urteurrenaren barruan, egitarau zabala prestatu zuen udalak; tartean, Hondarribiko eta Amaiurko herria senidetzeko ekitaldia. Apirilaren 27an izan zen. Ekitaldi instituzionala egin zuten lehenbizi, eta herri ekitaldia gero Arma Plazan. Helburua «Hondarribiak Amaiurko herriarekin zein Baztango eskualdearekin duen lotura hori sendotzea» izan zen.

Fermin Muguruza oholtzara igoko da

IRUN. Fermin Muguruzak apirilean iragarri zuen oholtza handietara itzuliko dela, Mundu Birarekin. «Kortaturen 40. urteurrenean, 40 urteko ibilbidearen ospakizuna, lau hamarkadaz zentsurari aurre egiten», azaldu zuen. Birako lehen kontzertua abenduaren 17an eman zuen Biarritzen, eta hil horren 20-21ean Bilbo Arena bete zuen. Urteurrena eta bira «momentu berezi batean» datorela esan zuen irundarrak, «Espainiako eskuin mediatiko eta judizialak berriz abiatu baitu oldaraldia».

Memoria historikoa berreskuratzen

LEZO. Miguel Angel Barcenilla historialariak *Garaituak eta esklabotuak*. Bortxazko lanak Lezon 1939-1942 liburua argitaratu zuen. Herrian, frankismoko lehen urteetan gertatutakoak ulertzeko ariketa egin zuen egileak 200 orrialde inguruan.

Liburuak txosten historiko bat du abiapuntu, Iparragirreko trabajadoreen barrakoiak babesteko egin zena, hain justu. Liburuaren ardatza da frankismoak herrira bortxazko lanak egitera ekarritako 5.000tik gora pertsonen memoria aitortzea.



Bi egoitzetako langileak batuta atera ziren kalera. I.Zarate

Bi zahar etxeetan alarma gorria piztuta Errenterian

Mobilizazioak egin zituzten Sanmarkosene eta Jesusen Bihotza egoitzetako langileek «zaintza sistema publiko duinaren» alde. Sanmarkoseneako greba mugagabeen daude azarotik.

ERRETERIA-ORERETA

Zaintza duina bermatzeko mobilizazioei ekin zieten maiatzean Jesusen Bihotza eta Sanmarkosene adinekoen etxeetan. Ez ziren bakarrik egon auzo elkarteetan, jubilatuen elkarteetan, Oreretako Mugimendu Feministaren, Oreretako Bilgune Feministaren eta Duintasuna pentsiodunen elkartearen babesa izan zutelako. Arazo berbera salatu zuten bi egoitzetan: langile falta. Pribatua da Sanmarkosene, baina lekuen %95 Gipuzkoako Foru Aldundiarekin itunduak dituzte. Jesusen Bihotza zahar etxea, berriz, Kabia aldundiaren organismo autonomoaren barruan dago. Bien artean, 300 herritar artatzen dituzte.

Bi egoitzetako egoera larria salatu zuten langileek Errenteriako Udaleko maiatzeko udalbatzarrean: «Egoiliarrek afaltzen dutenetik gosaltzen du-

ten arte hamalau ordu pasa daitezke, garbitzea lehentasun dugulako. Ez gara iristen». Aldundiak ezarritako irizpide batzuk ere ez zirela betetzen deitoratu zuten, esate baterako, egoiliarren as- tean bi aldiz dutzatzea, «gutxieneko hori ere ez da betetzen».

Langileak «gaizki tratatuak eta esplotatuta» sentitzen direla salatu zuen Duintasuna kolektiboak osoko bilkuran. Horri indarra emateko datu bat eman zuten: langile horien %30-40 artean baja egoeran zegoela. Mobilizazioei esker, baina, hainbat hobekuntza lortu zituzten, eta Sanmarkosene kudeatzen duen Gureak bajak ordezkatzen hasi zen. Dena den, beste urratsik ez zen egin mobilizazioek iraun bitartean, eta maiatzeko osoko bilkuran ekin zioten bide instituzionalari. Berehalako konponbidea eskatu zuten

bertan. Udalbatzarreko agerraldian zintza publiko unibertsal duina ere galdegin zuten. Zaintza duintzeko eskaerak EH Bildu, PSE-EE, eta Elkarrekin Podemosen babesa jaso zuen orduan.

Greba mugagabea

Azaroan berriro erdigunera eraman zituzten zaintzaileak nork zaintzen dituen auzia, eta Sanmarkoseneko langileek greba mugagabeari ekin zioten. Egoera «larria» dela salatu zuten beste behin, eta 2023ko azaroaren 30eko lehen greba feminista orokorreko aldarriak berriro defendatu zituzten: «Hitz horiek, baina, airean geratu dira, ekin-tza zehaztutara eraman gabe, eta bada garaia lelo politikoak praktikara pasa eta zaintzekiko konpromiso hori islatuko duten neurri errealak hartzeko».

Erizain laguntzaileak dira greban daudenak, eta hiru eskaera dituzte; denentzako %100eko lan jardunaldia; enpresak kaleratu nahi dituen bost kideak ez botatzea; eta behin betiko egutegia, kontziliaziorako. Gureak enpresak martxora arteko epea du behin betiko egutegia entregatzeko. Sanmarkoseneko egoiliarren senideek gatazkaren gaineko iritzia eman zuten, eta bi aldeen arteko akordioa lortzeko eskatu zuten abenduaren 8an egindako agerraldian. ■

Aiur Illarreta, munduko txapel-dun

LEZO. Kayak Surfeko Munduko Txapelketa jokatu zen maiatzean Argentinako Mar del Plata hirian. Kirol modalitate horretako Euskal Selektzioko kideak bertan izan ziren. Taldearen partaide izan zen Aiur Illarreta Beñaran lezoarra: munduko lau txapelketa lortu zituen gazteak, bat taldeka, eta beste hiruak bakarka.

Banakakoan, hiru urre ekarri zituen Lezora Illarretak: Open Short kategoriakoa (kayak txikiarekin), eta New Age modalitateko biak, short eta long atalekoak (kayak motz eta luzeak). Bestalde, taldekakoa sari orokorra izan zen, Euskal Selektzioko kideen emaitza metatuena.



1931an hildako langileei aitortza

PASAIA. Maiatzaren 27an bete ziren 93 urte Ategorrietako sarraskia izan zela. 1931ko maiatzaren 27an Guardia Zibilak itsasoko zazpi langile trintxerpetar hil eta beste zenbait zauritu zituen protesta manifestazio batean. Hildakoen eta haien senideen «oroimena ohoratze eta gogoratze» ekitaldia egin zuten egun horretan Trintxerpeko alkateordetzaren kanpoaldean, inguru hartatik abiatu baitzen langileen aldeko zorigaiztoko manifestazio hura.

Han bost konpromiso hartu zituen Pasaia Udalak, langile horien memoria gal ez zedin. «Eskubideen eta askatasunen defentsan borrokatu ziren eta hori egiteagatik ondorio pertsonalak jasan zituzten pertsona guztien aintzatespena» daude horien oinarrian. Botere publikoek, egiaren, justiziaren eta erreparazioaren printzipioekin lan egin behar dutela adierazi zuten.

Aitortzak Asturiagako bi biktimentzat

HONDARRIBIA. 50 urte bete ziren iaz Asturiagan poliziek Roke Xabier Mendez Villada *Poeta* eta Jose Luis Mondragon Elortza *Moriko* tiroz hil zituztela, eta Hondarribiko Udalak lehen aldiz egin zien harrera biktimen familiei. Ekitaldi horretan ikerketa historiko, objektibo eta kualifikatu baten txostena jaso zuten biktimen senideek.

Txosten horren bidez «justizia eta erreparaziorako eskubidea» daukatela aldarrikatu zuen Igor Enparan alkateak. Hondarribiko Udal Artxibo Historikoan topa daiteke.

Iazko urrian beste berri on bat jaso zuten biktimen senideek: giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko balorazio batzordeak Mendezi biktima izaera aitortu zion.

%6,5

BIDASOKO SUHILTZAIILEEN INTERBENTZIOEN HAZKUNDEA.

Irungo suhiltzaileen etxea Gipuzkoan biztanle gehien artatzen dituen da: Irun, Hondarribia, Oiartzun, Errenteria-Orereta, Oiartzun, Lezo eta Donibaneko 135.473 herritar. Gipuzkoa osoan hazi ziren interbentzioak 2023an, baina igogera handiena Bidasoko etxearena izan zen 2024ko maiatzean emandako datuen arabera: 817 irteera egin zituzten, eta gehienek, %41,6, salbamendu lanekin zerikusia izan zuten, 340 orotara. Suteek 219 irteera eragin zituzten, eta laguntza teknikoei lotutakoak 192 izan ziren.



HITZA

EUSKARA MAHAI ZABALA HONDARRIBIAN

HONDARRIBIA

Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa (2023-2027) apirilean aurkeztu zuen Hondarribiko Udalak. Horren harira, maiatzean bildu zen *lemixiko* Euskara Mahaia, udaletxeko areto nagusian. Orain artean egin direnekin alderatuta, badu zerbait berezia plan horrek; Muliaren Judas Arrietak egindako muralaren antzera, elkarlanean ondu dute udalak eta herriko eragileek. Hala, mahaiaren eginkizunak denon artean adostu dituzte, eta aurrera begirako lanketa eta ekintzak definitzen ari dira.

MAIATZA



Inoizko parte hartzaile gehien izan zituen alardeak. Imanol Saiz

Alardea berriro udalak antolatzeko zantzurik ez

Alarde parekidea berriro Irungo Udalak antolatzeko eskariari ezetza eman zion Cristina Labordaren udal gobernuak. Alardearen batzordeak ez duela «amore emango» adierazi zuen.

IRUN

Irungo udal gobernuak bigarren urtez egin zion harrera alarde parekideari 2024ko ekainaren 30ean. Aldiz, lehenbizikoz izan zen zeregin horretan alkate gisa Cristina Laborda, eta «alardea bizitzeko bi modu» daudela adierazi zuen. Hargatik, alarde baztertzaileari ere harrera egin zion, eta horrela, zapalkuntza eta gatazkaren normalizazioari bide eman zion. «Alardea bizitzeko bi modu daude, batek gehiengoaren babesa du eta besteak gutxiengo batena, eta biak dira guztiz legalak» azaldu zuen alkateak.

Labordaren gisan, Eider Mendoza Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuak ere bi alardeei egin zien harrera. Kontrara, soilik alarde parekideari harrera egiten EH Bildu, Elkarrekin-Podemos eta Sumar alderdietako ordezkariak izan ziren. Manuel Lezertua Arartekoa eta Emakundeko zuzendari Miren Elgarresta ere bertaratu ziren.

Iaz, aldundiak jai parekideak bul-

tzatzeko xedearekin, *Gure jaiak, berdintasunean* kanpaina abiatu zuen eta horretan bost gomendio jaso zituzten jaiak parekideak izateko. Lehen gomendioa da erakundeek jaietan ere berdintasunaren aldeko jarduerak eta gogoetak sustatu behar dituztela. Labordari galdetuta ea 2025ean udalak alardea antolatzeko ardura hartuko duen, erantzuna ezezkoa izan zen.

Alarde parekideak egin zuen balorazioan azaldu zuen ez zutela «amore emango» udalak alarde publikoa berriro antolatu arte. «Harro» sentitu nahi dute Irungo Udalez, bertako ordezkari politikoez, eta harro egon nahi dute alardea irundarrekin partekatu ahal izategatik.

Iaz ere hazi egin zen alardeko parte hartzaileen kopurua, «adin eta izaera» ezberdineko kideekin. Horren erakusle da 2025ean hamalagarren konpainia izango dela, 2024ko urtearen hondarrean sortutako Meaka konpainia. ■

Jesus Carrera Olaskoaga, pantailan

HONDARRIBIA. Jesus Carrera Olaskoaga hondarribiarraren bizitzan oinarritutako dokumentala estreinatu zen ekainean: *Hondarribiko gorria*. 1936ko estatu kolpearen ondoren lehertu zen 1936ko Gerran kokatuta dago. Carrera igeltseroa zen, eta aldi berean, Espainiako Alderdi Komunistaren zuzendaritzako kide izan zen. Alcala de Henaresen (Madril, Espainia) torturatu eta fusilatu zuten 1945ean. Hainbat ikerketa egin ondoren haren gorpua aurkitu eta jaioterrian lurperatu zuten. Iaz, 80 urte bete ziren Carreraren fusilamendutik.

Aitor Baztarrika hondarribiarrak sortu eta gidatutako dokumentala da, eta dagoeneko bitan proiektatu dute bere sorterrian. Bestalde, Irunen egiten den FICAB Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoko publikoaren saria irabazi zuen.



Autobidea baserritarrek itxita

IRUN. Europako lehen sektorearen deialdiarekin bat egin zuten Ipar eta Hego Euskal Herriko baserritarrek, eta Irundik Biriaturako noranzkoan autobidea itxizieten ibilgailuei ekainaren 3an. Soilik kamioiak pasa zitezkeen. Autobidea 24 orduz eduki zuten itxita, eta bertaratu zirenak EHNE, ENBA eta LBE sindikatuen, eta baserritar independenteek osatutako taldeen izenean joan ziren.

Batetik, kanpoko inportazioei «mugak» jartzea eskatu zuten, merkatuko prezioak baldintzatzen zituelako baserritarren lana. Bestetik, lan baldintza hobek eskatu zituzten. Mobilizazioen hurrengo egunean, ordu luzez auto ilara luzeak izan ziren AP-8 autobidean.



Agustinak Zentroa ireki dute

ERRETERIA-ORERETA. Kultur eta sormen industrietako proiektuak sustatzeko erreferentziatzko gunea izango den Agustinak Zentroa ireki zuten izen bera duen auzoan, ekainean. Kultur eta sormen sektorea lehiakorragoa izateko gakoetan lan egingo dute zentrotik, hala esan zuen Esti Susperregik, bertako zuzendariak. Aizpea Otaegi Erretereriako alkatearen esanetan, espazio hori «mugarri oso garrantzitsu bat» izan da, bide eman diotelako Erretereria Kreaktiboari.

Agustinak Zentroarekin egindakoa «jauzi kualitatibo handia» den uste osoa azaldu zuen alkateak, «ez soilik espazioa irabazten dugulako, anbizioan ere urratsa egiten dugulako baizik; eraginkorragoak izan nahi dugulako, topaleku izan nahi dugulako, eta sinergia eta lankidetzaz gehiago eraiki daitezten nahi dugulako». Zentroko zuzendariaren arabera, Gipuzkoarako erreferentziatzko diziplina anitzeko elkarlan ekosistema, sektoreko ekintzaileentzako eta enpresentzako tresna eta baliabide erabilgarriak eskaintzen ditu.



Ikerne Zarate

BOST URTE FEMINISMOTIK AHALDUNTZEN

ERRETERIA-ORERETA

2019ko martxoan zabaldu zituen atea Erretereria-Oreretako Emakumeen Etxeak, eta ekainaren 7an bost urte bete zituela ospatzeko festa eta gogoeta egin zituzten etxean bertan, dozenaka emakumeren partaidetzarekin.

2016an ekin zioten, parte hartze prozesu baten bitartez, herriko emakumeen espazioa izango zena zer eta nolakoa izango zen hausnartzera. 2019an ireki zituen atea emakumeentzako espazio seguruak, eta ordutik hamaika izan dira egindako ekitaldiak. Zalantzarik gabe, bete dute ezarritako helburuetako bat: erreferente izatea herriko emakumeentzat.

Herriartekoan txapeldun, Oiartzun

OIARTZUN. Ekainaren 29an esku pilotako Gipuzkoako Herriartekoaren finala jokatu zuen Oiartzunek, Zaldibiaren kontra, Donostian: hirugarrenez jarraian irabazi egin zuten. 2013an iritsi ziren oiartzuarrak lehen aldiz Herriartekoaren finalera, eta hura ere irabazi egin zuten.

Ordutik, sei aldiz iritsi dira azkeneko norgehiagoketara, eta beste hirutan izan dira garaile, 2022an, 2023an eta iaz zehazki. Oiarpe lan bikaina egiten ari den seinale da hori. Euskal Herrikoan finalerdietan bukatu zuen bidea.

Zaldibiaren kontra jokatu zuten finallean, kadeteen mailakoa izan zen galdu zuten bakarra. Jubeniletan, nagusitasun argia erakutsi zuten Olaizek eta Leonek; Etxeberría eta Landa seniorrena izan zen txapelketa eramateko erantzukizuna: 22-20, eta txapela burura.



Aiton-Etxe

EGUNEKO ZENTROA

ALDUNDIAREKIN HITZARTUTA
PLAZA PRIVATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42
OIARTZUN - www.aitonetxe.com





Parisen izan zen Begoña Lazkano pasaitarra. Hitza

Oarso Bidasoko kirolariak, Parisen

Uztailaren 16an hasi ziren Olinpiar Jokoak Parisen. Oarso-Bidasoko lau kirolari lehiatu ziren bertan: Begoña Lazkano, Maitane Etxeberria, Andy Criere eta Alain Kortabitarte.

OARSO-BIDASOA

Uztailaren 16tik abuztuaren 11ra Olinpiar Jokoei begira jarri zen mundua. 200 herrialdek baino gehiagok izan zuten ordezkaritza Parisen, eta Oarso-Bidasoko ordezkariak ere bertan izan ziren. Orotara, lau: Begoña Lazkano piraguista pasaitarra, Maitane Etxeberria eskubaloijokalaria lezoarra, Andy Criere surflari hondarribiarra eta Alain Kortabitarte skatererrenteriarra.

Piraguista pasaitarra K1 modalitatean aritu zen Vaires-sur-Marne kanalean. Abuztuaren 7an hasi zuen lehia eta finalurrekoak jokatu ondoren ez zuen finalerako txartela eskuratzerik izan. Abuztuaren 12an bukatu zen pasaitarraren amets olimpikoa.

Eskubaloiko emakumeen Espainiako selekzioak apirilean lortu zuen Pariserako sailkapena, eta ordutik prestaketa osoa taldearekin egin ondoren, Maitane Etxeberria lezoarra Ambros Martin prestatzailearen 14 jokalariko deialdian

sartu zen. Uztailaren 25ean debutatu zuen Brasilen aurka. Bigarren partida Angolaren kontra izan zen, (hilaren 28an) eta bi gol sartu zituen. Partida hori izan zen jokoetan jokatu zuen azkena; izan ere, lehenengo graduko zuntz haustura izan zuen bere ezker hankako iskiotibialean.

Andy Crierek, berriz, uztailaren 27an debutatu zuen Teahupo'on (Tahiti) jokatu ziren surf probetan. Lehen errondan John John Florence-en eta Alan Cleland-en kontra aritu zen, eta 12 punturekin hirugarren geratu zen. Hurrengo egunean finalerdietara sailkatzeko bigarren aukera izan zuen, baina kasu horretan ere ez zuen Alan Cleland gainditzea lortu.

Alain Kortabitartek mugarri bat ezarri zuen Euskal Herriko historian; Olinpiar Jokoetan skatean lehiatu den Euskal Herriko lehen gizona izan zen. Park modalitatean aritu eta 22 parte hartzailetik 15. egin zuen. ■



Nagore Laffageri omenaldia

IRUN. Istillaga plazan dagoen Irungo Emakumeen Etxean egin zioten omenaldia Nagore Laffage Casasola irundarri, Irungo Udalak eta Emakumeen Etxeak antolatuta. Uztailaren 8an hamasei urte bete ziren Jose Diego Yllanek irundar gaztea hil zuenetik Iruñeko sanferminetan.

Ekitaldian Espainiako auzitegiek Yllanesen aztarna digitala ezabatzeari uko egin ziotela gogorarazi zuen Asun Casasolak, ahaztua izateko eskubidearen gainetik informazio eskubidea dagoela ebatzita. Epaitegiek eskubide hori eman izan baliote, ezingo zela Laffagetaz «inon ere ez hitz egin» deitoratu zuen: «Ez eskoletan, ez gaur bezalako ekitaldietan, ez eta udaletxean ezta elkarreetan ere».

Urrats txikia

Yllanek Google bilatzaileak Laffageren hilketarekin lotutakoak ezabatzea galdegin zuen 2017an, aske geratu eta berehala. 2024ko martxoan Espainiako Auzitegi Nazionalak atzera bota zuten hiltzailearen eskaera, informazio eta adierazpen askatasuna gailendu egiten zaiolako ahaztua izateko eskubideari.

Casasolak, egindakoa urrats txikia zela adierazi zuen omenaldian, baina jendeak kalera irteten segitzen duen bitartean, «borrokan segitzen» duen bitartean, «ongizatea» lortzen dela oroitarazi zuen.

Bukatzeko, oraindik indarkeria matxistaren biktimak badaudela salatu, eta hilketa horiek egin bitartean, beste amei berak jasotako «kariñoa» emateko eskakizuna egin zuen: «Ez da berdina bakarrik egotea, edota nik jasotzen dudana maitasuna jasotzea. Besarkadek balio dute, badakigulako ez dugula justiziarik».

Antxoko Topaguneak, 10 urte

PASAIA. 2024ko Sanferminak are bereziagoak izan ziren Antxoko Topagunearentzat, iaz 10 urte bete baitzituen eragileak. Urteurren bereziaren harira ospakizun berezirik izan ez bazen ere, behar bezala itzali zituzten hamar kandelak.

Topagunea orain dela hamar urte «ilusio eta gogo» batetik sortu zutela azaldu zuen Uxue Montalvok, «herria astintzeko» helburuarekin. Filosofia horri eutsiz eskaintza zabala egin diete haur, gazte eta helduei urte horietan guztietan: San Tomas Eguneako festa, Antxoko festetako jarduerak, hitzaldiak, kirol probak, kontzertuak, hausnarketarako saioak...

Urteurren berezia biribiltzeko, abesti bat ondu zuen Topaguneak, 10 urteren ondoren, «zabor artean loratzen jarraitzen» dutela ospatu eta aldarrikatzeko. *Oasian dantzan* izena du abestiak.



Oiartzuarren erakusleiho, 25 urtez

OIARTZUN. 1999ko uztailearen 7an zabaldu zen Oiartzun Irratiaren seinalea estreinakoz. Kontakatilu Irratia zenaren azpiegitura aprobetxatu zuten, udalaren laguntzarekin. Emisio pilotua bezperan egin zuten, sanferminetako txupinazoa-rekin, eta Ane Lardi Enbil izan zen lehen esataria.

Orduetik, urak bezala, bere bidea jarraitu du irratia, baina aldaketa garrantzitsu bat izan du azken urteetan: Arraskuelarre kaleko lokala utzi, eta euskalgintzako gainontzeko eragileekin batera partekatzen du Landetxe eraikin berriko azkeneko solairua. Mende laurdena ospatzeko bazkari festa eguna egin zuten uztailearen 13an.



Ane Mendizabal

JAVIER BUSTOK ERRETIROA HARTU DU

HONDARRIBIA

Berrogeita hamahiru urteren ondoren amaitutzat eman zuen Javier Bustok abesbatzen zuzendari gisa aritzeko etapa. Egun, baina, musikari lotuta jarraitzen du hondarribiarrak: kantuak konposatzen.

Izan duen ibilbidearekin asebeteta, zuzentzeaz gehien gustatu zaiona taldeak dinamizatzea eta denek helburu berengatik borrokatzea izan dela kontatu zuen.



Imanol Saiz

HAUR SAHARARREI ONGIETORRIA

OARSO-BIDASOA

199 haur saharar etorri ziren Euskal Herrira 2024ko uztailean, Oporrak Bakean programaren barruan. Horietako zenbait Oarso Bidasoko herrietan izan ziren.

Donibaneko Bixi Bixi elkarteko Ixiar Goienetxeak aitortu zuenez, haurrek «bidaia oso gorra» izan zuten, baina irrikaz eta pozik iritsi ziren. Tindufetik (Algeria) Argelera, eta handik Bilbora heltzen dira.



Errekalde hotelaren parean egin zuten elkarretaratzea. A. M.

Urteetako borrokaren fruituak, Gaintxurizketan

Gaintxurizketako bizilagunak pasabide bat jartzeko borrokan aritu dira 2024an bereziki. Hamabost urteren ondoren konponbidea jaso dute instituzioetatik.

LEZO

Abuztuaren 5ean 73 urteko emakume bat hil zen Gaintxurizketatik pasatzen den Gi-636 errepideko 7.kilometroan, kamioi batek harrapatuta. Gertakari horrek bizilagunek zuten urteetako borroka berpiztu zuen.

Ezbeharraren hurrengo egunean Errekalde hotelaren parean egin zuten egoera salatzeko elkarretaratzea. Lehenik, doluminak helarazi zizkioten aurreko egunean hildako emakumearen familia eta lagunei, eta ondoren, administrazio eta arduradunen utzi-keriarekin «kokoteraino» daudela esan zuten.

GI-636 errepideak bitan zatitzen du Gaintxurizketa auzoa. Besteak beste, Gipuzkoako hiru hirigune populatuenak batzen ditu: Donostia, Oiartzualdea eta Bidasoa. Trafiko dentsitate han-

dia duen bidea da. Izan ere, Gaintxurizketa erdibitzen duen tartean, hiru errei ditu errepideak: Irungo noranzkoan bi eta Donostiako noranzkoan bat. Auzokideek edo inguruko enpresetako langileek maiz gurutzatzen dituzte hiru erreiak, auzoaren alde batetik bestera joateko edo Euskotrenen geltokira iristeko. Batetik bestera pasatzeko bide seguruena auzoaren kaskotik urrun dago —Lanbarren industrialdean—, eta, bi kilometroko ibilaldia egin beharrean, errepidea gurutzatzen dute. Hain zuzen, errepidea gurutzatzeko orduan gertatu dira istripu asko eta asko.

Ainhua Enciso bizilaguna beldur horren lekuko izan da urte luzez: «Gertaera hain gogor baten ondoren, soluzioak bilatu beharrean aitzaki bila ari dira. Heriotza bat justifikatzen ari dira. Pasarella batek diru asko balio duela

entzuteak min ematen du. Eta zenbat balio du bizitza batek, bada?».

Urriaren 7an beste elkarretaratze jendetsu bat egin zuten auzoa zatitzen duen errepidearen parean. Eskumena duten erakundeak «zeren zain» zeuden; horixe galdetu zuten mobilizazioan. Egun hori ez zuten ausaz aukeratu: bazekiten urriaren 10ean auzi hori izango zutela hizpide Gipuzkoako Batzar Nagusietan, eta lezoarrek bazekiten «herrialdea, hedabideak eta indar politikoak» euri begira zeudela. «Orain da momentua», zioten. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Trenbide Sareak eta Lezoko Udalak abiatu zuten ordurako arazoari irtenbide bat emateko plana, baina, bizilagunen presioari esker, azkartu egin zen prozesua.

Presiotik irtenbiderantz

Foru Aldundiak eta Lezoko Udalak egindako bilkuraren ondotik jakinarazi zuten aldundiak jada prest zuela, «presazko neurri» gisa, errepidea gurutzatzeko aldi baterako gaineko pasabidearen proiektua. Bien bitartean, behin betikoa izango den pasabidearen diseinuarekin lanean ari direla jakinarazi zuten auziarekin zerikusia duten erakundeek, eta Donostiara joan-etorria egiteko autobus geltokia egiteko eskaera kontuan izango zutela azpimarratu zuten.

Azaroaren 26an jakinarazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gi-636 errepidean oinezkoentzako behin-behineko aldarnio egiturako pasabidea egiteko baimena eman zuela gobernu kontseiluak, baita horretarako aurrekontua adostu zutela ere: 412.127,34 euro.

Horrez gain, tarte horretan ibilgai-luen abiadura muga orduko 70 kilometrorra jaitsi, seinalizazioa indartu eta Iruneranzko norabidean dauden bi bideetatik auzotik hurbilen denari 300 metro kenduko dizkiotela zehaztu zuten. Tarte horretan hormigoizko babes-hesiak ere ezarriko dituztela adierazi zuten. Aldi berean, azaldu zuten behin lanak esleitzen direnean, horiek egingo dituen enpresak lau hilabeteko epea izango duela aldi baterako oinezkoen zubia egiteko. ■



Kaleko Margo Lehiaketak, 30 urte

HONDARRIBIA. Emeki elkartearen Kaleko Margo Lehiaketak hiru hamarkada bete zituen abuztuan. Elkarteko kideak poz-pozik eta harro agertu ziren lehiaketak izandako ibilbidearekin. «Lehiaketa gutxi izango dute hogeita hamar urteko ibilbidea eta harro gaude gureaz», esan zuen Tzane Carrillo Emeki elkarteko kideak. Urte horiek guztiak «legera» ospatzeko lehiaketa berezia eta erakusketa bat antolatu zituzten.

Abuztuaren 4an egin zuten lehiaketa. 34 artistek parte hartu zuten eta Ricardo Azkargortak irabazi zuen. Gainera, Emeki elkarteak aurrenekoz sariketa hori antolatu zuenetik izan zuen Javier Sagarzazu epaimahaikide. Arrazoi horregatik omenaldi txiki bat egin zioten lehiaketaren egunean bertan.

Hogeita hamar urteak ospatzeko lehiaketa berezia antolatzeaz gain, urte hauetan guztietan hori irabazi duten pertsona guztiak omendu nahi izan zituzten. Horregatik, koadro guztiak jaso zituen erakusketa bat egin zuten. Abuztuaren 5etik 25era izan zen ikusgai Itsas Etxean.



Alaine Aranburu

IRUNGO EUSKAL JIRAK ASMO GUZTIAK GAINDITU DITU

IRUN

Hiru eguneko Euskal Jaia antolatu zuten iaz. Haurrentzako puzgarriak, janari postuak eta Burrunba elektrotzarangaren emanaldiak girotu zuten lehen eguna. Bigarren egunean desfilea egin zuten Letxunborro hiribidetik Urdanibia plazaraino. Eguraldia lagun izan zuten eta jende andana elkartu zen gurdi bakoitzaren bueltan. Azkenik, Gipuzkoako Pentatloi Txapelketarekin biribildu zuten egitaraua.

Iazko edizioa berezia izan zen antolatzaileentzat, 1979an Euskal Jira berreskuratu zenetik antolakuntza lanetan aritutako Manueltxo Kerejeta eta Jexux Mari Gelbenzu zendu baitziren.

Hilabete beltza mendizaleentzat

OIARTZUN-LEZO. 26 urteko oiartzuar batek eta 27urteko lezoar batek ezbeherra izan zuten Frantziako Alpeetan, Mont Blanc du Tacul mendian. Tontorretik jaisten ari zirela, Gervasutti bidean rappel egiten, 100 metro ingurutik erori eta hil egin ziren. Haiekin zen beste oiartzuar gazte bat bizirik atera zen.

Lezoko zein Oiartzungo alkateek X sare sozialaren bidez doluminik sentikorrrenak bidali zizkieten bi gazteen senide eta lagunei. Galdos sendiak, bestetik, Oiartzungo herritarren partetik jaso duten babesa eta goxotasuna eskertu zuen.

Hil berean Izaskun Zubizarreta mendiko eskiatzaile, korrikalari, mendizale eta emagina hil zen gaixotasun baten ondorioz. Euskal Herriaren historiako mendiko eskiatzaile onena izan da Zubizarreta, datuek hala diote.

JARRAI DEZAGUN
URTEKO HISTORIA
ETA ISTORIOAK
ELKARREKIN IDAZTEN

**orereta
ikastola**
AURRERA!



www.oreretaikastola.eus



Jaizkibel Konpainia Kale Nagusian gora. Allende Arnaiz

Babes oldea jaso du Jaizkibel konpainiak

Lehen aldiz konpainia izaerarekin egin du desfilea Jaizkibelek, eta inoizko harrerarik handiena jaso du herritarren zein gizarte eta politikako eragileen artetik konpainia parekideak.

HONDARRIBIA

Inoizko harrerarik handiena jaso zuen Jaizkibel konpainiak irailaren 8ko Alarde Egunean. Kale Nagusia bete-bete azaldu zen konpainia parekideari oles egiteko herritarren, zein gizarte eta politikako ordezkariren partetik. Txaloak asko eta ozenak. Oihuak, aldekoak eta irmoak. Kaleak hogeita zazpigarrenez berdintasun itxaropenez eta konpainiaren zapiaren kolorez blai. «Gora Jaizkibel!» oihuak Kale Nagusian konpainiak gora eta behera egin zuenean. Arma Plazako errebistan ere alaitasuna, poza, konplizitatea eta festa gogo.

Gernikako Arbola joanekoan eta bueltan, hutsa; alarde baztertzailako konpainiak ziren han egotekoak. Ez zuten Jaizkibelen indarra ikusi nahi izan. Hori bai, beste konpainietako hainbat gizon izan ziren Jaizkibel jarraitzen, Guztion Alardea mugimendukoak. Jendarte hobe baten alde ari da borrokan Jaizkibel duela ia hiru hamarkadatik

eta 2024an, konbikzio horrek, inoizko onespene handiena izan du. Lehenengoz konpainia izaerarekin egin zuen desfilea, eta arratsalde irudi ederrak utzi zituen *Zapateroa*-ren doinuekin.

Igor Enparan alkateak, bestalde, herriko festetan «gezurrez eta gorrotoz» betetako kanpaina pairatu zuela jakinarazi zuen urri hasieran gutun bidez. Udal agintariari eraso egiten saiatu zirela zehaztu zuen, «norbaitek ere jotzeko ahalegina egin du». Herrian zabaldu ziren hainbat esamesa eta zurrumurru gezurtatu zituen, «gure arteko elkarbizitza gaiztotzeko zabaldu dira, min egiteko».

«Hondarribiar guztien artean Alardea bizitzeko akordio bat topatzeko asmoz» lanean jarraituko duela esan zuen agirian, «tentuz baina nekaezin, eskuzabal eta temati». Laguntza eskatu zuen Enparanek, «bide hau elkarrekin eraikitzeko. Hondarribia justuagoa eta demokratikagoa eraikitzeko». ■

Hamabost urte bete ditu Arraztalok

OIARTZUN. Arraztalo Kontsumo taldeak 15 urte bete zituen iaz. Horrela, herritar talde baten konpromisoari esker, urte hauetan gaixotasun mentala duten pertsonen lan integrazioa bultzatu ahal izan du elkarteak Oarsoaldean. Baratze ekologikoen bidez, lanpostu egokituak ditu Oiarzungo elkarte horrek, eta bertan ekoiztatuko kontsumo taldeko saskien bidez saltzen du.

Integrazio sozio-laborala eta tokiko kontsumoa sustatzen dituen komunitateak, barazki ekologikoen asteroko saskiak, ekoizleekin harreman zuzena, eta kontsumo arduratsua eta jasangarria eskaintzen ditu.

Arraztalo elkartearen ekoizpena ekologikoa eta sasoikoa da, eta kontsumo taldeko saskien banaketa nagusia Oiarzungo plazan egiten du.



Marea arrosak jantzi ditu Lezoko kaleak

LEZO. Marea arrosak hartu zituen Lezoko kaleak Piztu Lezok antolatutako Gazte Egunarekin. Herria egiten ari dira, eta nabarmen gelditu zen hori goizean antolatutako Herri Olinpiaden finalean sortu zen giroarekin zein mahaiaren bueltara bildutako gazte kopuruarekin: 360 lagun izan ziren Karlos Saldise plazan antolatutako bazkarian.

Azaroaren 16an gazte dinamikaren hamargarren urteurrena ospatu zuten, gainera. Piztu Lezoren ibilbidea biltzen duen dokumentala eta abestia aurkeztu zituzten egun horretan. Sua pizten jarraitzea deitu zuen dinamika: «Soilik herri antolatuak lor ditzake helburu handiak».



Xenpelar AEKrentzat habi berria

ERRETERIA-ORERETA. Euskaldun oso irten dira dozenaka herritar Biteri kalearen 30eko lehen solairuko Xenpelar AEKtik azken hogeita hamar urteetan. Irailen itxi zituen arnagune horrek atea betiko—Xenpelar AEK gisa—, ikasle, irakasle, irakasle ohi, eragile eta norbanakoek eskainitako agur goxoarekin. Nafarroa hiribideko 67ra lekualdatu zen euskaraz bizitzea xede dutenen ametsa egi bihurtzen jarraitzeko. 1985ean Gau Eskoletako txinpartatik sortutako Xenpelar AEK haren helburuak bera izaten jarraitzen du: «Euskal Herria euskalduntzea, herrigintzatik eraginda».

Zazpi lagun deitu dituzte deklaratzera

IRUN. Ipar Euskal Herriko erakunde sozial, politiko edo sindikaletako zazpi kide Hendaiako komisarian deklaratzera dei egin zituen poliziak. 23. Korrikarekin batera 36 migratzaile Santiago zubia zeharkatzen laguntzeagatik deitu zituzten. Urriaren 2an deklaratu zuten Hendaiako komisarian, eta 2025eko urtarrilaren 28an Baionako epaitegian deklaratu beharko dute berriz ere.

Akusatutako zazpi ekintzaileei elkartasuna adierazteko eta migrazio politikak salatzeako autoinkulpazio kanpaina abiatu zuten *J'acusse* aldarriean azaroaren 20an. 2025eko urtarrilaren 26an, berriz, nazio manifestaziora deitu dute. Zazpi ekintzaileei atxikimendua adierazteaz gain, Europako immigrazio politika errepresiboak eta Frantziako Gobernuak eskuin muturraren laguntzarekin ezarri duen azken immigrazio legea salatuko dituzte protestaren bidez.



HITZA

ARRAUNEAN EZ DA DENA GOZOA IZAN

PASAIA

1924ko irailaren 14an lehen Kontxa irabazi zuen San Juanek. Gogotik ospatu zuten mendeurren hori, jartzerik zuten gingarik biribilena jarrita ospatu gainera: San Juanen gizonen traineruak Eusko Label Ligan lehiatzeko txartela lortuta play offean. 2018an galdutako hura berreskuratu zuten iaz, eta gorenean ariko dira lehian aurten, beraz, arrosak.

Txanponaren ifrentzuan, San Pedro. Azkeneraino borrokatu ziren moreak saiakera betean, baina ez zuten lortu play offean arraunaren goi mailan jarraitzeko txartelik, eta aurten, KAE1 Ligan ariko dira.



Biblioteka eraldatu nahi dute kolektiboki

OIARTZUN. Manuel Lekuona biblioteka eraldatzeko prozesua abiatu zuten udalak eta Ku-ku Haur eta Gazte Literatur inizatibak, *Bazen behin liburutegi bat* prozesuaren bidez, herriak behar duten biblioteka eredua «modu kolektiboan birpentsatu eta diseinatzeko». Funtzio, zerbitzu eta espazioak ikuspegi komunitarioago batetik formulatu nahi dituzte, eragile komunitario eta azpiegitura sozial gisa ulertu, eta herritarren beharretara nahiz prozesu sozial eta kulturalen zerbitzura egon dadin.

Egoitza berria du Oarsolanek

ERRETERIA-ORERETA. Oarsoaldea Garapen Agentziak Oarsolan Enplegurako eta Inklusiorako Berrikuntza Zentroa inauguratu zuen irailaren 24an. Oarsolanek eskualdean laneratzeko eta kalitatezko enplegua sustatzeko erronka du, eta Erreteria-Oreterako Lartzabal auzoko 31. zenbakian egingo du bidea. Oarsolanen helburu nagusia da pertsona langabetuen eta bereziki ahulenen gizarteratzea eta laneratzeko sustatzea, enplegua eta gizarteratzera bideratutako eragileekin lankidetzan.

Datuei erreparatuta, urtean 1.800 langabe inguru artatzen dituzte Oarsolanen, eta 2.500 enplegu ekintza, orientazio saio, banakako edo taldekako ikastaro eta lan laguntzako beste jarduerak batzuk jartzen ditu haien eskura.

Horrez gain, Oarsolanek Oarsoaldea eskualdeko langabeen %50a baino gehiago artatzen du.

Memoria historikoa berreskuratzeko

OIARTZUN. Udalak bultzatuta, 1936tik 1978ra Oiartzunen giza eskubideen urraketak, errepresioa eta motibazio politikoko beste indarkeria batzuk jasan zituzten emakumeen historia berreskuratzen hasi zen Aranzadi elkarteak. Udalerriko emakumeek izan zituzten bizi baldintza gogorrak dokumentatzea du helburu. Orain 10-15 urte hasi ziren garai horretan espezializatutako ikerlariak, metodologia zientifikoaren bidez eta genero ikuspegia aplikatuz, emakumeek izan zuten papera eta sufritu zituzten egoerak ikertzen. Oiartzunen, Kattin Txiki urte luzez ibili da memoria historikoa berreskuratzeko lana egiten.

Txotxongilolarien topagunearen habi

BIDASOA. Lehenbiziko Euskal Herriko Txotxongilolarien Topaketa egin zuten Irun eta Hondarribian urriaren 19 eta 20an. Antolatzaileak Ostomila taldeko Zoa Tamara Cuellar eta Ruben Mejutok azaldu zuten sektoreko profesionalen arteko lankidetzak sustatu eta haien lana aitortzeko helburuarekin antolatu zutela topaketa. Txotxongilolaria eta haien zaleak elkartu ziren, eta Euskal Herriko txotxongilo antzerkiaren esperientziak nahiz ezagutzak partekatu, eta aniztasuna ospatu zuten. Arreta emakume txotxongilolariengan jarri zuten, eta arte horren garapenean egindako ekarpen garrantzitsuak mahai gaineratu.



Pasaia Antifaxistak deitutako elkarretaratzea Donibanen. A. Aranburu

Elkarbizitza kezka iturri bihurtu da azkenaldian Trintxerpen

PASAI

Trintxerpeko herritarren elkarbizitza kolokan jarri zuten zenbait bizilagunen jarrerak. Mobilizazio aroa abiatu zuen herritar talde batek, «segurtasun eza» salatu eta «lapurreta gehiagorik» ez zutela onartuko adierazteko. Baketsua beharko lukeen protesta batek zantzu arrazista eta xenofoboak hartu zituen, eta tartean,

indarkeria erabiltzeari ekin zion zilegi diren protesta horiekin bat egin zuen talde batek, justizia bere esku hartuta. Gaiak norabide kezagarria hartu zuen.

Hainbat istilu izan ziren aurretik barrotian; zazpi lagun atxilotu zituzten liskarra izan ostean Araneder kaleko okupatutako lokal batean. Protestak hasi zituzten bizilagunek, talde hori jo zuten liskarren hasieraren erantzule. Bizilagunak, kaleko segurtasunarekin kezkatuta, antolatzen hasi ziren eta ia egunero kalera irten ziren manifestazioa eginez azaro hasierara arte. Auzotarren ezinegona eta abiatutako borroka zilegi direla ukatu gabe, mezu arrazista, xenofobo eta faxistez bete ziren sare sozialak. Kaleetan ere horrelako jarrerak ikusi ahal izan ziren, eta zenbait gauetan atzerritik etorritakoen kontrako erasoak izan zirela jakin ahal izan zuen HITZA-k, eta tartean identifikazioak, miaketak eta jipoiak jasan zituztela zenbait lagunek.

Indarkeria arbitrario kasu horiekin eta zabaldutako hainbat mezurekin kezkatu, talde antifaxista bat ere mobilizatzen hasi zen, gerora Pasaia Antifaxista bihurtu zena. Elkarbizitzarako deia egin zuen horrek: «Mezu faxista eta arrazistak gure herrira iritsi dira. Pasaia integratzaile baten alde gaudenok norabide berri bat hartu nahi dugu, ez ditzagun diskurtso eta jarra faxista nahiz arrazistak gure artean onartu». Haserrea adierazteko, eta talde horren deiarri erantzunez, herri argakia egin zuten dozenaka lagunek Donibanen, «arrazakeriaren eta faxismoaren kontra». ■

PSIKOLOGIA ETA HEZKUNTZA
ALDAKETA Psikogunea
HAURRAK - NERABEAK/HELDUAK - BIKOTEAK

Olatz Elizondo Cuñado - PSIKOPEDAGOGOIA
Maite Elizondo Cuñado - PSIKOLOGOIA

Luis Mariano 4 - 1. B - 20302 IRUN - 943 63 15 72 / 664 42 24 40



Genozidioa eteteko eskatu dute

OARSO-BIDASOA. Oarsoaldeko lau herrietako, eta Irun nahiz Hondarribiko herritarrek Palestinako genozidioa eteteko eskatu zuten Gernika Palestina herri dinamikak deituta Israelek Palestinaren aurka inoizko erasorik bortitzena hasi zuenetik urtebetera. Ugariak izan ziren urtean zehar Palestinaren alde egindako elkartasun erakustaldiak.

Mendebaldeari duen ardura har dezan, ezikusiarrena egiteari utz diezaion, eta Palestinako Estatua aitortuta su etena eta negoziazioa zabaltzea eta garbiketa etnikoa gelditzea exijitu zuten protestarekin bat egin zuten herritarrek, enegarrenez.

Zigorren batura aintzat hartuko dute

OARSO-BIDASOA. 7/2014 legearen erreformak euskal presoeri ezartzen zitzaizen salbuespen politikaren legetako bat indargabetu zuen. Europako Batasuneko kide diren estatuak ezarri beharreko zuzentarau baten harira heldu zen erreforma hori. 2008koa da Europaren zuzentaraua, eta 2014an ezarri zuen Espainiak, baina PPK neurriak euskal presoengan eraginik izan ez zezan xedapen gehigarri bat ezarri zuen. 2010eko abuztuaren 15aren ostean ezarritako zigorrei baino ez ziren eragingo horren arabera neurriak. Xedapen gehigarri hori bertan behera gelditu zen erreformarekin. Normatiba berriak Europako Batasuneko beste herrialdeetan betetako espetze zigorrak batzea ahalbidetu zuen.

Joanes Larretxea (Oiartzun), Lorentxo Aiestaran (Lezo), Aitzol Gogorza (Orereta), Balbino Saenz (Antxo), eta Iratxe Sorzabali (Irun) eragin ziren erreformak.

Emakumeen Etxeak, urtebete martxan

IRUN. Urriaren 19an urtea bete zuen Irungo Emakumeen Etxeak, eta jaia antolatu zuten lehena merezi moduan ospatzeko. Goizetik hasi zituzten ospakizunak eta orduan egin zuten ekitaldi instituzionalean Cristina Laborda alkateak esan zuen Emakumeen Etxea emakumearen ahaldunderako eta berdintasunerako proiektuen ortzimuga bilakatu dela.

Arratsaldean kokteldegi feminista, Berdinki zirkua *Leinu* antzezlan eta bakarrizketak izan zituzten eguna biribiltzeko Maria Blanco, Esti Curiel eta Maialen Sorzabalbererekin.

Parekidetasunaren bidean urratsa

LEZO. Berdintasun Kontseilua sortzeko prozesua martxan jarri zuen Lezok lehen bilkura eginda; hurrengo 2025eko urtarrilaren 22rako programatu dute. Orotara, 17 lagun bildu ziren, Gaxuxa, Lezdi, Etxetxo, Allerru, Piztu Lezo, Ttakun eta Lezoko Emakume taldeko kideak bertan zirelarik. Eneritz Arruti Osanbela eta Mireia Kuesta Unzain Lezoko Berdintasun zinegotziak, nahiz Itsaso Cruz Etxeberria Erreterriako Berdintasun zinegotzia eta Karmele Fernandez Boga bertako Berdintasun Kontseiluko kidea ere bilkuran izan ziren.

Erreterriako Berdintasun kontseilua Gipuzkoan aitzindaria da, eta osatu du ten ibilbideaz jardun ziren lezoarrekin.



Ahantzuratik atera, zauriak sendatzeko

HONDARRIBIA. Francoren diktaduraren izugarrikeria beste herritar askoren antzera zuzenean bizitzeaz gain, erregimen frankistak kargugabetu zituen Hondarribiko alkate, zinegotzi eta udal langileei erreparazio eta aitortza ekitaldia egin zuten udalak Itsas Etxea auditorioan; izan ziren haien izenean, senideek jaso zuten omenaldi sentitu, hurbil eta xumea.

1936ko estatu kolpearen ondorioz Hondarribiko bi alkate, bederatzi zinegotzi eta hamasei udal langile «depuratuak», beren kargutik kenduak izan zirela jarri zuten nabarmen: «Frankismoaren garaian gertatutako asko isiltasunean gertatu ziren, eta urteak joanda ere, isiltasun horretan mantendu izan dira. Hurrengo belaunaldiek ez zuten gertatutako horren transmisiorik jaso gehienetan, baina 2022ko Memoria Demokratikoaren Legearen arabera, biktimak dira eta egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea dagokie». Frankismoak kendutako kargu publikoak itzuli dizkietela baieztatzen zuen agiria jaso zuten garaiko alkate, zinegotzi eta udal langileen senideek.

ATERPE

HIGIEZIN AGENTZIA

- Alokairuak eta Salmentak.
- Bermea + Segurtasuna.
- Aterpe Agentzia beti irtenbideak proposatzen.

Tel.: 943 52 36 94
www.aterpe.com

samar

ADMINISTRAZIOAK

Biteri 43, behea. Erreterria-Orereta
943 50 32 24 - 688 71 43 14
samar.admon@gmail.com



Azaroaren 30eko hilketa matxista salatzeko elkarretaratzea. I. Saiz

Indarkeria matxistaren basakeria, gordinenean

Azaroaren 30ean emakume bat hil zuen gizon batek Antxon. Arbuio mezu eta mobilizazioak asko eta askotarikoak izan ziren. «Gizarte bezala huts egin dugu. Sistema, berriz ere, berandu iritsi da», esan zuen mugimendu feministak.

PASAIA

Azaroaren 30ean emakume bat hil zuen gizon batek Antxon. Indarkeria matxistaren alde-rik basatienak agerraldia izan zuen Pasaian. Gogor eta irmo salatu zuten emakumearen herrikideek, erakundeek eta Pasaia-kanpoko indar feministek hilketa. Euskal Herrian indarkeria matxistak hildako zazpigarren emakumea izan zen Antxokoa. Samina, amorrua, ezinegona eta ezintasuna herrian. Baita erakundeei horrelakorik berriz ere gerta ez dadin neurri eskaera ere. Aldi berean, azaroaren erdialdean Kataluniako Poliziak 53 urteko gizon bat atxilotu zuen han, 2022an emaztea hil izana egotzita. Emakumeak 44 urte zituen, eta Irungoa zen. Horiez gain, 2024an zehar bi eskualdeetan izan diren eraso matxista guztiei erantzuna eman die mugimendu feministak.

Abenduaren 1ean, Antxoko hilketa matxistaren biharamunean, salaketa elkarretaratze oso jendetsua egin zuten Antxon. Pasaia-ko Mugimendu Feministako kide batek, lau barrutietako emakume guztien izenean, isila izan den elkarretaratze-ahotsa jarri zion: «Gaur bete ezin den hutsune batekin esnatu da Pasaia», esaldiarekin hasi zen: «Gaur ez dugu bakarrik negar egiten, ahotsa ere altxatzen dugu. Kalera atera gara justizia eskatzeko eta etenik ez duen indarkeriaren aurrean erantzun irmoa erreklamatzeko. Balia bideak, benetako babesa eta emakumeak bakarrik ez uzteko benetako konpromisoak eskatzen ditugu», azaldu zuen. Instituzioei «berak egindako bidea hemen ez geratzeko» eskatu zien Pasaia-ko Mugimendu Feministak, «jarrai dezatela borrokan eta lanean

justizia egiteko geratzen den prozesuak aurrera jarrai dezan».

Sistemak huts egin zuela. Hori adierazi zuen mugimendu feministak. Izan ere, hiltzailearen kontra «aspaldi» aurkeztu zuen salaketa emakumeak. 2020an jarri zuen salaketa hain zuzen ere, eta handik bi urtera artxibatu egin zuten kasua. Erailketak «indarkeria matxistak presente jarraitzen» duela gogorarazten duela garbi azaldu zuen mugimendu feministak: «Bihotz gabea da indarkeria matxista, baita emakumeok zapaltzen gaituzten kaleak indar osoz apurtzea bilatzen dugunean ere. Gizarte gisa huts egin dugu. Sistema, berriz ere, berandu iritsi da».

Etxeko langilea zen hildako emakumea. Haren lankideek ere salaketa elkarretaratzea egin zuten Antxon. Indarkeria matxistaren «errealitate latz» horretatik ez daudela salbu esan zuten, eta haietako askok ere erasoak jasan dituztela azaldu, emakume izate hutsa-gatik. «Batzuek tratatu txarren egoeretatik ihesi emigratzen dugu, eta askok hemen ere aurre egin diegu egoera horiei, gure lanetan. Erail duten lankidearen kasuan bezala, gure familia eta lagunekiko distantziak zaurgarriago egiten gaitu. Gure batasunak bakarrik, elkartasun sareen bidez, emango digu beharrezko indarra zailtasunei aurre egiteko eta garena baino indartsuagoak izaten jarraitzeko», adierazi zuten.

Indarkeria matxista, gorantz

Azaroaren 25eko Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna eta gutxira hil zuten Antxon emakumea. Azaroaren 25ean basakeria matxistaren kontrako garrasia ozena izan zen, herri guztietan izan ziren mobilizazioak. Horren hari-ara, indarkeria matxista zenbakietara eraman zuen HITZA-k erreportaje-aren. Jasotako datuen arabera, 2024ko lehen bederatzi hilabeteetan, 2023ko tarte horrekin alderatuta, hazi egin ziren indarkeria matxista salaketak. 2024ko urtarriletik irailera 493 indarkeria matxista salaketa jarri ziren Erretereriako eta Irungo ertzain etxeetan; 2023ko iazko epe berberarekin alderatuta %13,59ko igoera izan zuten salaketek. 2023an 434 jaso ziren epe horretan. ■



Juanje Neirak aitortza jaso du

PASAIA. Juanje Neira trintxerpetarrak omenaldia jaso zuen azaroaren 22an. Herriko musika eta dantza eskolak haren izena darama ordutik. Izan ere, herriko kulturgintzan nekaezin aritu da Neira dozenaka eta dozenaka urtez, eta lan isil eta eraginkor horri aitortza egin zioten udalak eta herritarrek.

Hunkituta jaso zuen Neirak aitortza, eskertuta. Ez zuen espero. Egindakoari garrantzia kendu gabe, Pasaian kultur-gintzaren alde egin behar dela adierazi zuen, eta lanean jarraitzeko prest dela azaldu.



Herri olinpiadekin, berriz ere martxan

HONDARRIBIA. Azaroaren 30ean ekin zieten berriz ere Hondarribiko herri olinpiadei. Herriko gazte mugimendua euskaraz eta elkarlanean suspertzeko egitaspora 27 talde batu ziren, horietatik zortzi berriak. Abenduaren 14an burutu zuten bigarren jardunaldia, eta gainontzeko guztiak aurtengo ekainaren 7ra arte egingo dituzte.

Olinpiaden aro berrienerako hirugarrenak dira azaroaren azken egunean hasi zirenak. Gazteen aisia aukera aberastu nahi dute antolatzaileek, gazteak bilduz, eta elkarrekin zer egin erabakiz herri giroan eragiteko.



Imanol Saiz

OARSOALDEKO DANTZARIAK, ONENAK

OIARTZUN-LEZO

Ukaezina da Oarsoaldeko dantzarien maila handia. Horren erakusle, dantza txapelketetan 2024an lortutako emaitzak. Bikotekako Euskal Herriko Txapelketan Katerin Artola oiartzuarrak eta Iker Belintxon lezoarrak bigarren (irudian) izan ziren garaile urrian, Seguran; azaroan egin zuten aitortza Oiartzungo Udalak, haren izenean dantzatu baitziren.

Azaroaren 23an, berriz, gipuzkoar erako Euskal Herriko Aurreku Txapelketa irabazi zuen Mattin Etxebeste oiartzuarrak Hondarribian.

Lezoko energia komunitatea, bidean

LEZO. Energia komunitatea sortzeko urrats esanguratsuak egin ditu Lezoko Iratzerri taldeak 2024an. Egitasmoa egikaritzeko asmo irmoa azaldu zuen azaroaren 17an egindako agerraldian. Lezoko Udalaren babespean ari da gaia lantzen. Oarsoaldeko hirugarrena izango da, Errenteria-Oreretakoaren eta Oiar-

tzungoaren ondotik. Horrela, Lezon bertan energia sortzeko aukera izango da, ingurumenarekin bat egingo duten sistemekin, eta bidezko prezioarekin.

Komunitatea sortzeko bidea, ordea, duela hiru urte hasi zuen Iratzerri. Formazio, informazio, eta kontzientziazio saio asko egin dituzte ibilbide horretan. Orain, proiektuarekin bat egingo duten herritarren bila dabilta, komunitatea ahalik eta sendoena izan dadin.

PIO BAROJA BHI
Hiriari eta ingurukoei irekia

- Goizez, batxilergo eskaintza zabala
- Arratsalde, helduen batxilergoa

piobaroja.eus • 943899297



Abenduaren 3an Irunen egin zen elkarretaratzea. A. Aranburu

Eguberrietako argietan euskararik ez

Irungo Eguberrietako ekitaldiei harrera egiteko ikuskizunean euskarak ez zuen inolako tokirik izan. Euskararen Egunaren biharamunean egin zuten jarduera hori.

IRUN

A benduaren 4an Eguberrietako argiak pizteko ekitaldia egin zen Irungo San Juan plazan. Horren harira, Irungo 35 elkartek salatu zuten hiriko euskaldunei «ezikusiarena» egin zietela. Ekitaldia gaztelania hutsean izan zen, Mateo Bergara aurkezletik hasi eta Gisela abeslariak abes-tutako kantuetaraino. Hautsak harrotu zituen ustez atsegin eta festa girokoa zen ekitaldi hark. Izan ere, euskararekiko mespretxuzko jarduera izan zen, bai ekitaldiaren izaeragatik, bai eta bertan parte hartu zutenek izandako jarrera-gatik. Ekitaldi horren harira gutuna bidali zuen Nekane Barandiaran irundarrak HITZA-ra. «Ulertezina egiten zait gure lurraren benetako erreferenteei ezikusiarena egitea besteren aukeren mesedetan», deitoratu zuen.

Irungo eragileen erreakzioa azkarra izan zen. Bat-batekoa, eta historikoa. Izan ere, hiriko 35 elkartek agiria egin eta zabaldu zuten. Euskararen kontra-

ko erasotzat jo zuten abenduaren 4ko arratsalde hartan gertatutakoa, eta premisa horrekin bat izanda Irungo hainbeste eragile batzea historikotzat kontsidera daiteke.

35 elkarteek gogorarazi zuten abenduaren 4koan euskararen presentzia eza haientzat, «zoritxarrez», ez zela deus berria izan, «ohituegi» daude euskaldunak existituko ez balira bezala tratatzera. Ordukoa, baina, «mingarriagoa» izan zela adierazi zuten, «noiz eta Euskararen Nazioarteko Egunaren biharamunean, non eta bereziki haurrei zuzendutako ekitaldi batean». Hizkuntza Eskubideen Behatokiak bat egin zuen salaketarekin, eta gertatutakoa «onartezina» izan zela adierazi zuen.

Eragileen agiria publiko egin eta egun batzuetara Irungo Udalak barkamena eskatu, eta «konpromisoa» adierazi zuen «euskararen presentzia eskasa» berriro suerta ez dadin. ■

Eresbilen 50 urteak, liburuan

ERRENTERIA-ORERETA. Eresbil Fundazioak 50 urte bete zituen 2024an, eta urteurrenaren kari bost hamarkadako ibilbidea jasotzen duen liburua argitaratu zuten, *Eresbil: 50 urte musika ondarearen zerbitzura* izenekoa. Eresbileko langileek egin dute lana, dokumentu-tratamenduaren unitateko arduradun bakoitzak kapitulu bat idatzi baitu. Bi atal nagusi ditu 259 orrialdeko liburua. Lehen atalak fundazioaren bilakaera biltzen du: sorreratik hasi eta hurrengo hamarkadetan izandako ibilbidea. Bigarren atalean, ordea, Eresbilek lantzen dituen dokumentuak eta horien tratamendua azaltzen dute.

Aurrera begira hainbat erronka ditu fundazioak, tartean, digitalizazio edo adimen artifizialak dakartzanak. Horiek baliatzeko hautua egin dute.



Pintaketa eta eraso faxistak izan dira

OARSO-BIDASOA. Irunen, Hondarribian eta Oiartzunen pintaketa eta eraso faxistak izan dira abenduan zehar. Gehienak Irunen izan dira, Lakaxita gaztetxean eta Moskuko gaztetxean, baita hainbat auzotako toki esanguratsuetan ere. Hondarribian, kai berrian pintaketak agertu ziren, eta Oiartzungo Aritxulegiko trabajadoreen oroigarria ere hautsi zuten. Horiei erantzuna emateko San Tomas Egunean elkarretaratzea egin zuten Irunen, Lakaxitak deitutakoa. «Faxismoa beti egon da artikulatuta eta antolatuta, eta guri egindakoa ez dela eraso isolatu bat izan», esan zuten. Herritarrak faxismoa borrokatzera deitu dituzten han, «faxismoarekin ez da eztabaidatzen».



Patri Urkizu Sarasua hil da

LEZO. Irakaslea, idazlea, Filologia Erromanikoan lizentziatua, Euskal Filologian doktore, kirolaria, Eusko Ikaskuntzako Hizkuntza eta Literatura saileko zuzendari, Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari eta euskaltzain urgazlea, Lezoko alkate izandakoa (1979-1983). Teatroa eta bertso-gintza izan ziren bere lurraldeak batez ere. Abenduaren 18an hil zen Patri Urkizu Sarasua (Lezo 1946-2024). Euskal kulturgintzaren esploratzaile eta eragile, aitzindari arlo askotan, euskararen bidetik sormenaren eta hizkuntzak ezezagun zituen kultur arloen konkistatzaile nekazetzaile. Baina denaren aurretik, lezoarra. Euskaltzale lezoarra. Galera handia euskal kulturgintzarentzat. Eta Lezorentzat.

Kaleratu zuen azken lana *Eskribu galduen bila, autobiografia eta kultur kritikak* izan zen, 2023ko abenduan. 600 orrialdeko lana, bizitza oso baten kronika antzekoa, laburtu ezin daitekeen emari baten tantaz tantako sorkuntza, biografia, bizitza oso bateko apunteen bloka, Lezoren bilakaeraren kronika, bidaiak, pasadizoak... «Lehenengo kontuak jakiteak ez digu kalterik egingo», azaldu zuen Urkizuk lan hura aurkezteko ekitaldian, Lezon. Jakinduria zabaltzea, banatzea, betiketzea izan baitzen haren misio eta bokazioa. Inork inoiz egin ez zituenak bilatu, jaso, eta euskararen unibertsoa zabaltzea.

Bere obra osoa jasotzen duen webgunea zabaldu zuten 2021eko apirilean. Harro zen Urkizu era digitalean ere hark egindako gehienak bilduta, sailkatuta, eta edonoren esku zeudelako. Gaixotasun baten kontrako borrokan izan da azken urteetan. Hala ere, ez zion sortzeari utzi, ez zen geldirik izan.



Leire Perlines

GIPUZKOAKO BERTSOLARI ONENA DA ALAI MARTIN

OIARTZUN

Bertsotan zoragarri aritzea. Helburu hori zuen Alaia Martin Etxebeste bertsolari eta idazle oiartzuarrak abenduaren 14an Donostiako Illunben jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako. Zoragarri baino hobeto aritu zen, eta irabazi egin zuen. Txapel zoragarria harena Gipuzkoakoan lehiatu zuen laugarren finalean.

Finalaren biharamunean Hitzari eskainitako hitzetan esan zuen «zaitxoka» ospatu zuela garaipena, familiarekin, lagunekin, oiartzuarrarekin... Eskertza mezua ere izan zuen: «Aitortza handi bat egin behar zaie Oiartzun bertsolari eta bertsozale bat izateko lan egin duten denei».

Sakelako gutxiago, burua altxatzeko

PASAI. Haur eta nerabeen artean mugikorra erabiltzeko beharra murrizteko kanpaina berezia aurkeztu zuten abenduaren hasieran Pasaia Udalak, Altxa Burua guraso taldeak, eta Laurak Bat elkarteak. Elkarlanean landu duten *Gurea erabil dezakezu* izeneko kanpainarekin «haurrei lehen smartphonea emateko adina atzeratzea eta mugikorrik gabeko nerabezaroa sustatu» nahi dute.

Mugikorren gehiegizko erabilera goiztiarra eta horrek haur eta nerabeengan sortzen duen mendekotasuna gurasoen kezka iturri dela esan dute aurkezpenean. Inertzia hori hautsi nahi dute, Laurak Baten barruko saltokietako telefonoak eskainiz baldin eta haur eta nerabe horiek deirik egin nahi badute, eta horrela espazio publikoa berreskuratu, jolastu eta hitz egin dezaten.

Leunda
ETXERA ERAMATEKO JANARIA

Oarso kalea 8, 20110 Pasai Antxo
943 51 54 14 - 676 153 128

Hondarribian euskaraz bizi gara!



Hondarribiko
Udala